

HUELVA: Marrubiak biltzen lan egiten duten emakumeen egoerak alarmak piztu ditu > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Gonzalez, GAL, CIA

IÑAKI ALTUNA > 11

2020ko ekainaren 20a | XIV. urtea • 676. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ETXEALDIAK ETXEA ALDATU DU > 12 Raul BOGAJO | FOKU



Huelvan marrubiak biltzen lan egiten duten emakumeen egoera kaxkarraz ohartarazi dute 04

Pandemiak arriskuan jarri du navajoen arima: adinekoak 08

Itxialdiak etxearen kontzeptua aldatu du eta aldaketa batzuk geratzeko etorri dira 12

«Emakumeak teknologiaren historian», ahanzturaren kontrako urrats txiki bat 17

E.lkarrizketa: Paul Rios, Jakindun hezkuntza plataforma 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beaumont: Ke eta su arteko egunak berriz ere bueltan Parisen

10 Ander Gortazar Balerdi: 45 minutu

11 Iñaki Altuna: Gonzalez, GAL, CIA

16 Amaia Ballesteros

20 Gorka Zozaia: Gaur da eguna

21 Joana Garmendia: Galdetu Otegi

27 Xabier Mikel Errekondo: Oporrak non?

27 Amagoia Mujika Telleria: «Te comería»

30 Maitena Usabiaga Sarasua: Oheko korapiloak



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Ke eta su arteko egunak berriz ere bueltan Parisen

Pandemiari erantzuteko xedez iragarritako alarma egoerak behin-behineko estaldura eskaini zion Emmanuel Macron frantses presidenteari. Hiru hilabetez luzatu den egoera, ordea, bukatzeaz delako suma daiteke. Auzitegi zein legebiltzarrak kontu eske hasi dira osasun krisiaren gaineko kudeaketari buruz. Lehen urratsak baizik ez dira. Uztailaren 10ean ofizialki altxatuko da «osasun gerrari» aurre egiteko ezarritako salbuespen egoera, eta are gardenago azalduko da legitimitate krisia.

Deskonfinamendu soziala, edonola ere, abian da. Ameriketako Estatu Batuetan gertaturiko azkeneko hilketa arrazistaren oihartzuna iritsi da Hexagonora. Parisko erdigunera heldu da beraien azalaren koloreagatik bazterkeria pairatzen duten auzo popularretako herritarren ahotsa. Hilabete luzez hutsik ikusi ditugun etorbideak eta plazak jendearen amorruz eta justizia gosez bete dira beste behin ere.

George Floyden heriotzak eragin duen haserrealdiak muga guztiak gainditu ditu eta aspalditik lozorroan zegoen arrangurari bide eman dio Parisen, “Justizia Adamarentzat” izeneko kanpaina hauspotuz. Azkenengo hiru urteetan kanpainako kideek eginiko lana aintzat hartu gabe ezin da ulertu Poliziaren esku hil zen gazte paristarraren heriotzari buruz egia argitzeko ekimenak azken asteotan lortu duen ikusgarritasuna. Egun, frantziar telebista guztiak Assa Traore beraien zuzeneko emankizunetan parte hartzeko lehiatzen ari dira, baina Adamaren arreba auditorio askoz apalago batean hartu zuen hitza, esaterako, 2017ko urrian. Adama hil eta urtebetera, Baionako gaztetxera etorri zen Assa, justizia lortzeko bere etxekoak eta anaiaren lagunak egiten ari ziren borrokaren berri emateko.

Polizia indarkeriaren itzala oso luzea izanik, Minnessotako oihuek berehala izan zuten oihartzuna

Atlantikoaren beste aldean. Egiturazko arazo baten aurrean gaudela ez genuke ahaztu behar, afera ilun eta mingarritz beteriko lapikoa borbor hasi den honetan. Hori dela eta, Macronen Gobernuak modu konpultsiboan erabiltzen duen iragarpenen politikak ezin du emaitzarik eman.

Botereen arteko marra inoiz baino finagoa dela profitatuz, Traore familia boterearen korridoreetara hurbilazten ahalegindu da Gobernuak. Tiraderan ahaztuta zuen auziari irtenbide azkarra eman nahian, Justizia Ministerioan eman zioten hitzordua Assa Traore berari. Alta, komunikazio amuak kale egin zuen. Christophe Castaner Barne ministroak eginiko bigarren saioak ez du uzta hobeagorik ekarri. Arrazakeria segurtasun indarretatik desagerrarazteko iragarritako

Traore familiak uko egin dio Justizia Ministerioan bilera egiteari. Poliziak, berriz, Barne ministroak iragarritako arrazakeriaren aurkako plana salatu du

planak ezinegonareagotu du kasernetan. Jaka Horien matxinadaren garaian azkarki emendatu zen polizia bortizkeriaren orbanak berriro ere zipriztindu du plaza publikoa. Noiz eta heldu den ekainaren 28an egingo diren herriko bozen bigarren itzuliaren atarian, noiz eta «osasun gerraren osteko berrikuntzaren plana» abian jartzeko Emmanuel Macronek hautu zailak fite egin beharko dituen.

Amaierarik ez duten iragarpenen politikaren agortze sintomak agerikoak dira. Komunikazio trikimailek ez dute luzaro lortuko arazoak ezkutatzeari. Macronek bere burua berrasmatzeko operazioari bide emanez Errepublikaren batasuna defendatzeko segurtasun manuala atera du. Giro soziala are gehiago useltzeko formula zaharra. •

MARRUBIEN BILKETAREN BESTE ALDEA

Nazio Batuei Huelvan fruitu gorrien bilketan lan egiten duten emakume marokoarren egoeraren berri eman diete

Duela bi urteko apirilean, Alemaniako hedabide digital batek Huelvan marrubiaren eta beste fruitu gorrien bilketan lan egiten duten sasoikako langileen egoera salatu zuen, eta, bereziki, esplotazioaren eta sexu gehiegikerien biktima diren emakume marokoarrena. 2016-17ko denboraldian marrubien bilketan lan egin zuten hainbat emakume marokoarren sexu abusuen salaketak jasotzen zituen erreportajeak eta haren titularrak –“Europako landetan bortxatuak”– sektorea astindu zuen. Nazioartean ere oihartzun handia izan zuen.

Argitalpen horrek ateak zabaltu zizkion salaketa gehiagori. 2018ko ekainean, hamar jorنالارik Almonteko enpresaren kontra salaketa jarri zuten sexu abusuengatik eta lan esplotazioagatik.

Women's Link Worldwide gobernu kanpoko erakundeak bere gain hartu zuen 2018ko apirilean Huelvara iritsi ziren lau emakume marokoarren salaketa. Haiek bezala beste 10.000 emakumek lan egin zuten lehen aldiz marrubiaren bilketan, aurreko urte batzuetan ere jardunak ziren beste 6.000 emakumerekin batera. 2008az geroztik ez zituzten langile berriak kontratatzen.

Europako merkatuan Espainia da marrubi ekoizle handiena. Eta biltzen diren marrubien %95ek Huelvan du jatorria. 2015-2017ko lan hitzarmenaren arabera, biltzaileek eguneko 39,97 euroko soldata jaso behar zuten eta asteko lanaldia 39 ordukoa zen. Lanaldia gutxitu edo luzatu zitekeen premien arabera, baina, edonola ere, 39 orduko lanaldia luzatuz gero, ordu estrak izango ziren.

 **EKONOMIA** / Ainara Lertxundi

Women's Link Worldwide eta beste zazpi taldek Nazio Batuetako hainbat erakunderi Huelvako marrubien bilketan lan egiten duten emakume marokoarren lan baldintzak eta pandemian prebentzio neurriak hartu ez dela salatzeke komunikazio bateratu bat igorri diete, 2019an egindako ikerketa batekin batera.

Alemaniko hedabidearen erreportajeak sorrarazi zuen eskandaluak, lan hitzarmen berria sinatzera behartu zituen 2018an ASAJA patronala eta CCOO sindikatua. Soldata 41,20 eurora igo zuten eta, lehen aldiz, sexu jazarpenaren preben-

tziorako protokolo bat aurreikusten zuen. Era berean, aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko artikulua bat, 35.a, bildu zuen lan hitzarmen berriak. Harturiko konpromisoak errespikatatu ote diren eta egoeraren diagnostiko bat egiteko, 2019an,

Irudian, Women's Link Worldwidek epaitegian ordezkatzeko dituen lau emakume marokoarrak.
Laura VALERO | WOMEN'S LINK WORLDWIDE

Women's Link Worldwide, Andaira eta Taraceas Cooperativa erakundeek eta beste aditu batzuek ikerketa bat egin zuten sasoiko langileekin, eta Huelvako mugimendu eta ekintzaileekin.

«Eskubideak sistematikoki eta modu estrukturalen urratzen jarraitzen dutela egiaztatu genuen. Koronabirusa dela eta, bereziki kezkatzen gintuen sasoiko langile emakumeen egoerak. Berez isolatuta badaude, are gehiago testuinguru honetan», ohartarazi du Women's Link Worldwide erakundeko abokatu Aintzane Marquezek.

Women's Link Worldwide eta beste zazpi taldek Nazio Batue-





Lau emakume marokoarrak 2018ko apirilean iritsi ziren Huelva marrubiaren bilketan lan egiteko. Laura VALERO | WOMEN'S LINK WORLDWIDE

tako hainbat erakunderi urgentziazko komunikazio bat igorri diote, 2019an egin zuten ikerketarekin batera, sasoiko emakume langile horien eskubideak errespetatu daitezzen eta urraketa gehiagorik ez egoteko gomendioak eman ditzaten.

«Ez dute neurri nahikorik hartu fruitu gorrien bilketan jarduten diren etorkinen nahiz bertakoen berezko beharrak asetzeko, are gutxiago genero perspektiba batetik. Pandemia dela eta, 7.000 emakume inguru etorri dira soilik. Tokian tokiko taldeei eta emakume marokoarren taldean ez dauden beste langile etorkin batzuei esker jakin dugu lan hitzarmenean zehaztutakoa baino ordu gehiago egon direla lanean eta ez dela errespetatu koronabirusa dela-eta gomendatutako segurtasun distantzia. Eta ez diete ez maskararik ez eskularrurik eman. Konfinamenduak areagotu egin du babesgabezia eta

murritzitu egin du urraketa horiek gertatzen ari direla salatze-ko gizarte zibilak duen gaitasuna. Egungo testuinguruak larriagotu egiten du jada baze- goen egoera bat eta beste urraketa batzuk gertatzea errazten du», azaldu zuen Marquizek.

DISKRIMINAZIOEN SORBURUA

«Hortaz ohartarazi nahi dugu Nazio Batuetara bidali dugun komunikazio horrekin. Espero dugu erantzuna kolektibo ahul- lenen eskubideak bermatzeko bide orri bat izatea», azaldu du. Kontratazioak jatorrizko he- rrialdeetan egiten dira. Maroko- ren kasuan, Lanbide Agentzia Nazionalaren (Anapec) bitartez. Lanpostuak tokian tokiko langi- leekin edo inguruan bizi diren atzerriarrekinekin bete ezin direne- an jo dezakete enpresek kontra- tazio mota hori egitera.

Marokorekin sinatutako lehe- nengo akordioa 2001. urtean egin zen. Hala ere, garai horre-

tan, sasoiko langile gehienak errumaniarrak eta poloniarrak ziren. 2007an, Errumania Euro- pako Batasunean sartu zen eta, horren ondorioz, marrubiaren sektoreko enpresariak ezin zi- tuzten jatorrian kontratatu sa- soiko langile errumaniarrak.

Emakume marokoarrez osa- turiko lehenengo lantalde han- dia 2006an iritsi zen Huelva, eta, ordutik, marrubien eta bes- telako fruitu gorrien bilketan parte hartzen duen kolektiborik handiena da. Profil zehatz bat daukate: 20 eta 45 urte bitarte- ko emakumeak dira, adin txiki- koak (14 urte baino gutxiagoko- ak) beraien kargura dituztenak. Alargunak, ama bakarrak edo dibortziatuak direnak lehenes- ten dituzte, eta horrek «egoera ahulago batean» jartzen dituela dio Marquizek.

«Kolektibo zaurgarri bati bu- ruz ari gara. Zama handia daramate emakume horiek beren gain, eta, egoera ahul horretan, baliabide gutxiago dituzte ja- rrera kritiko bat izateko, jasan ditzaketan urraketen aurrean. Profil horrek badu helburu ja- kin bat, behin bilketa bukatuta, etorkinak beraien herrialdeeta- ra itzultzea. Esklusiboki emaku- meak kontratatzeak sektorea- ren feminizazioa eragin du eta enpresariarekiko nolabaiteko mendekotasuna, zeren kontra- tu horiek leku jakin batean eta enpresa zehatz batean lan egite- ko baitira. Espainiara iristen di-

«Kolektibo zaurgarri bati buruz ari gara. Zama handia daramate emakume horiek beren gain, eta, egoera ahul horretan, baliabide gutxiago dituzte jarrera kritiko bat izateko»

Emakume marokoarrez osaturiko lehenengo lantalde handia 2006an iritsi zen Huelva, eta, ordutik, marrubien bilketan parte hartzen duen kolektiborik handiena da

renean, behartuta daude lan baldintzak onartzera; izan ere, beraien familien sostengua dira eta aurreikusita zuten soldata irabazi behar dute», nabarmen- du du GAUR8rekin telefonoz egindako elkarrizketan.

Hautaketa prozesuak hiru egun irauten du. Marokoko hainbat hiriburutan egiten da urtarrilaren erdialdean. Marru- biaren sektoreko ugazaben or- dezkaritza bat Marokora joan ohi da elkarrizketak egitera. Emakumeek familia liburua aurkeztu behar dute eta kontra- tazio prozesuak doakoa izan be- harko lukeen arren, zenbait gas- tu hartu behar dituzte beren gain, hala nola pasaporte, bisa eta osasun ziurtagiriarenak.

Bi denboralditan egiten dute lan; lehena, bilketa denboraldi- ren hasieran, otsailean, eta, bes- tea, apirilaren erdialdean. Maia- tzaren bukaeran edo ekainaren hasieran amaitu ohi da marru- biaren bilketa. Fruitu gorrien bilketa, ordea, uztailaren erdial- dera arte luzatzen da.

ULERTZEN EZ DUTEN HIZKUNTZAN
Hautatzen badituzte, aurrekon- tratu bat sinatzen dute Maro- kon. Gehienetan, frantsesez ida- tzita dago, ulertzen ez duten hizkuntza batean, alegia. Itzul- penik ez dietela ematen salatu du Women's Link Worldwide erakundeak eta beste taldeek egindako ikerketak. Kontratu- aren ezaugarriak eta lan baldin- tzak gainetik azaltzen dizkiete, hala nola soldata zenbatekoa izango den, lanaldian atsedene- naldi bat egiteko eskubidea du- tela, aste bakoitzean atsedene- gun bat izango dutela, gaztela- nia ikasteko ikastaroak egiteko eskubidea dutela eta ostatua kontratuaren barruan dagoela.
Baina jatorrian esandakoa ez da beti betetzen. Bilketaren be- rezitasunak direla eta, «malgu-

tasun handia” eskatzen diete; hau da, egun batzuetan lan karga handia izaten dute eta besteetan ez, eta, jakina, egun horietan gutxiago kobratzen dute. «Ohikoa da, halaber, enpresek langileak transferitzea beraien artean eta modu informalean, enplegu emailearekiko lotura urratuz. Eguneko jardunean eduki beharko luketen ordu erdiko atsedenaldia ez da beti errespetatzen: produktibitatearen aitzakia medio, ordu gehiago ezartzen dizkiete. Eguneko kutxa kopuru jakin bat biltzera behartzen dituzte batzuetan. Mehatxupean ordu estrak betearazten dizkiete, bestela ez baitiete lan kargarik ematen eta, hori dela eta, ez dute soldatarik jasotzen. Maiz, ordu estrak ez dizkiete ordaintzen edo, ordaintzekotan, tarifa finko baten arabera egiten dute».

Bestalde, enplegu emaileek ostatua eman behar diete. Baina, egindako ikerketan, horretan ere urraketa larriak antze-

man zituzten; etxebizitza askok ez zituzten gutxieneko neurriak betetzen. Kasu batzuetan ez zegoen izozkailurik, besteetan ez zegoen ur edangarri nahikorik, langileen higienarako edo jakiak garbitzeko, eta ur beltzak tratatzeko sistema ez zen egokia. Horrez gain, pisuak jendez gainezka egon ohi dira. «Kasu batzuetan, argindarra, alokairua eta gas hornidura langileek be-
raiek ordaindu behar dituzte, jatorrian esandakoaren kontra.

BESTE LAN BALDINTZA BATZUK

Osasun estaldura kontratuan sartuta badago ere, langileak ez dira beti horren jakitun, ez dute hizkuntza menderatzen, ez dakite nola tramitatu osasun txartela, edo osasun etxetik urrun daudenez, ez dute baliabiderik haraino joateko.

Women’s Link Worldwide erakundeak legez ordezkatzten dituen lau emakumeen kasuan, hiru hilabetez –horietatik hamabost egun proba moduan–,

«Sexu jazarpenaren lekuko izan naiz. Logeletara etorri, atea ireki eta sartu egiten zen. Lanetik kanporatu ninduen gizon horrekin asko sufritu zuen neska bat ezagutu nuen»

«Ikusi ez nuen soka bat zegoen lurrean. Estropezu egin eta nire belaunaren gainean erori nintzen. Ez nekien zer egin. Eseri nintzen, baina ezin nuela eserita egon esan zidaten»

Haien lekukotasuna aditzera emateko, Women’s Link Worldwidek bideo bat egin zuen. Behean, salaketa ipini zuten lau emakumeak gobernuz kanpoko erakundearekin elkarrizketan. Laura VALERO | WOMEN’S LINK WORLDWIDE

lan egingo zutela esan zieten. «Kontratua gaztelaniaz idatzita zegoen eta ez zieten itzulpenik eman, beraz ezin izan zituzten jatorrian agindutako lan baldintzak hemen esan zizkietenekin alderatu. Obra kontratu bat zen eta proba moduan lan egiteko epea hamabost egunekoa izan beharrean, hilabetekoa zen. Lalnaldia ez zen hiru hilabetetarako, baizik eta enpresak marrubi biltetarako beharrezkotzat jotzen zuen eperako. Horrez gain, ostatuaren gastuak –ura, argindarra eta gasa– soldatatik kentzen zizkieten. Esplotazioaren

biktima izan ziren. Ugazabak jarritako ekoizpen helburuak betetzen ez bazituzten, gehiegizko penalizazio bat jasotzen zuten, ez zizkieten ordu estrak ordaindu, ez zuten osasun arretarik izan eta beste nazionalitateetako langileekiko diskriminazioa pairatu zuten», ekarri du gogorra Marquezek.

Gobernuz kanpoko erakundeak bideo batean bildu zituen lau laborarien lekukotasunak. Ondorengo lerroetan, komatxoaren artean azaltzen diren adierazpenak, bideoan jasotako testigantzak dira: «Poz pozik etorri ginen Huelvara. Ez genekien, ordea, jasotako kiloen arabera lan egingo genuela. Kutxa pila bete behar genituen. Ez zen nahikoa 16 edo 20 betetzearekin. 20 kutxa betetzen zenitue-nean, 30 betetzeko esaten ziguten eta gero hamar gehiago, nahiz eta leher eginda egon. Egun batean, neska bat gaixotu eta konortea galdu zuen. Ez zuten ospitalera eraman. Gaixorik





zaudela ikusten duten arren, ez dute deus ere egiten».

«Ikusi ez nuen soka bat zegoen lurrean. Estropezu egin eta nire belaunaren gainean erori nintzen. Ez nekien zer egin. Eseri egin nintzen, baina ezin nuela eserita egon esan zidaten».

JUSTIZIA ESKURATZEKO ZAILTASUNAK

«Sexu jazarpenaren lekuko izan naiz. Logeletara etorri, atea ireki eta sartu egiten zen. Lanetik kanporatu ninduen gizon horrekin asko sufritu zuen neska bat ezagutu nuen. Beste langileei lanera joaten uzten zien, bere logelako atea jo eta berarekin derrigorrez sexu harremanak izan behar zituela esaten zion. Neska Marokora itzuli zen».

«Lan egin nahi bagenuen berarekin oheratu behar genuela esan zigun. Gelakide bati hurbiltzeko eta bere gainean jartzeko agindu zion. Emakume asko abusuen biktimak izan ziren, baina ez dute salaketarik ipini».

«Marokotik hona lan egitera etorri naiz, ez irainen eta jazarpenen biktima izatera».

Marokotik Huelvara lan egiteko nahiarekin joan ziren. Haien ilusioak eta nahiak, ordea, zapuztu egin ziren. Agindutako lan baldintzak ezerezean gelditu ziren.

Laura VALERO | WOMEN'S LINK WORLDWIDE



Women's Link Worldwide erakundeak beharrezkotzat jotzen du lan eredu hori genero perspektiba batetik aztertzea. «Inpaktu handia du jatorrian kontratatzen dituzten emakume horiengan. Lan egonkortasunik gabe eta lursailetan isolatuta, esplotazioa eta bestelako biolentziak pairatzeko arrisku handiago dute. Lana galtzearen beldurragatik, askok ez dute salaketarik jartzen. Guk ordezkatzan ditugun lau emakumeak ez dituzte berriro kontratatatu salaketa jarri zutenetik. Salaketa-

rekin herrikide gehiagori gauza bera ez gertatzea nahi zuten, besterik ez. Frustrazio handia sentitzen dute». Lau emakume horien salaketa epaitegian dago. Bi prozedura zabaldu dira, bata, lan esplotazioari dagokiona, eta, bestea, sexu jazarpenari buruzkoa. Ez batean ez bestean ez dago epaiketarako egunik.

«Justizia eskuratzeko dituzten zailtasunen adibide bat da. Justizia eskuratzeko ez da soilik epaitegiatarantz jotzeko aukera izatea, baizik eta dagozkizun eskubideen jakitun izatea, salake-

ta bat jartzeko baliabideak jakitea eta abar», adierazi du Marquezek. «Konfinamenduan, nekazaritza lehen mailako ondasuntzat jo zuten. Eta hala da. Beraz, laborariak eta sasoiko langileak ere badira. Pandemia hau eredu berri bat garatzeko baliatu behar dugu; 'normaltasun berri' horretan ez dute gauzek bere horretan gelditu behar. Emakume horiek inolako babes neurririk gabe lan egin zuten pandemian eta ezin dugu onartu horrelakorik berriro gertatzea», azaldu du abokatuak.

OROIMENA ARRISKUAN

Pandemiak arriskuan jarri ditu navajoen ohituren gordetzaileak diren adinekoak

Navajo herriaren erre-serban, western batetik ateratakoa dirudien

Ameriketako Estatu Batuetako erreserba amerindiar handie-nean, zaharrak dira tribuaren nagusiak. Beraiek dira tribuaren oroimenaren jabe eta arbasoen ohiturak gazteei helarazteaz arduratzen direnak. Ustekabean, baina, koronabirusaren pandemia mendez mende mantendutako ekosistema delikatuak arriskuan jar-tzen ari da.

AEBetako mendebaldeko sinbolo ezaguna den arroka ikusgarritz zipriztindutako Mo-nument Valley bailara mor-tuan, Lanell Mernard-Powh ja-

 **JENDARTEA/** Gaur8

Navajo herriak dauka covid-19aren ondorioz hildakoen tasa altuenetariko bat AEBetan. Ez da harritzekoa, navajoek jasaten dituzten bizi baldintza gogorrek erraztu egin baitute gaitza hedatzea. Kezka are handiagoa da adinekoengatik, herri amerindiarraren biziraupenerako funtsezkoak baitira. Oroimena eta ohiturak gorde eta hurrengo belaunaldiei helaraztearen arduradunak dira.

nari kutxak pilatzen ari da. Ja-nari banaketan parte hartzen ari da. 60 urte baino gehiago adinduek gidatutako ibilgai-luak hurbiltzean, boluntarioek «zaharrak!» oihu egiten dute, eta janari gehiago ematen die-te, tribuko adinduei zor zaien errespetuaren seinale.

Utah, Mexiko Berria eta Ari-zonan artean banatutako lu-rralde desertikoan, 175.000 biztanle bizi dira. Dagoeneko horietako 5.500 laguni eragin die koronabirusak, asko adine-koak. Navajoen tribuak dagoe-neko 250 hildako izan ditu co-vid-19aren ondorioz. AEBetan

Emerson Gorman, navajo sendalaria, emaztearekin, alabarekin eta ilobarekin.
Mark RALSTON | AFP

New Yorkeko estatuak soilik du heriotza tasa handiagoa.

Lanell Mernard-Powh hunki-tu egiten da koronabirusaren madarikazioaz hitz egitean. «Amaginarreba gaixotu egin zen eta berehala eraman ge-nuen ospitalera. Alperrik, sei egunetara hil zen», azaldu du 49 urteko emakumeak.

Adineko amerindiar asko, diabetesa bezalako gaixotasun kronikoak dituztenak, kide as-koko familietan bizi dira, eta maiz etxe berean: koronabiru-sa zabaltzeko koktel aproposa. Are kezkagarriagoa eskuak maiz garbitzea pandemiaren aurkako prebentzio keinu era-ginkorrenetakoa denean eta erreserban bizi diren navajoen %30ek etxean txorrotako ura ez dutenean. Askotan kilome-troak egin behar izaten dituzte autoz putzuetara gerturatu eta ura eskuratzeko.

«Gaixotasunak bereziki za-harrei eragiten dienez, herri indigenak oso beldurtuta dau-de. Adinekoek pisu garrantzi-tsua baitute euren gizarte an-tolaketan», nabarmendu du Allison Barlow doktoreak, 90eko hamarkadatik erreser-bako indiarren osasunaz ardu-ratzen den Johns Hopkins zen-troko zuzendariak.

MEDIKUNTZA TRADIZIONALA

Emerson Gorman navajo he-rriko sendalaria zorrotz ari da osasun agintarien gomendio-ak jarraitzen: maskara beti du soinean eta etengabe garbi-tzen ditu eskuak. Sendabela-rren ezagutza izugarria du, eta, adibidez, juka eta ipurua erabiltzen ditu hainbat gaixo-tasuni aurre egiteko.

Hainbat hektareako etxalde batean bizi da Gorman, navajo nazioaren bihotzean. Gorma-nek eta bere familiak abereak hazi eta belarrak landatzen di-



tuzte, eta, 66 urteko sendalaria nabarmendu duenez, jende askok eskatu dio «covid-19a urruntzeko bedeinkapena». Medikuntza tradizionalaren transmisioa bereziki garrantzitsua da navajoentzat, Gormanek azaltzen duenez, «energia naturalarekin, izpirituekin eta mundu naturalarekin konektatuta baikaude».

KULTURAREN GARRANTZIA

Gormanek badaki zer den navajoen kulturaren suntsipenari aurre egitea: 5 urte zituela familiatik aldendu zuten, beste milaka eta milaka haur navajo bezala. Kristau eskoletara bidali zituzten guztiak, euren sinesmen tradizionalak suntsitzea helburu. Ikastetxe kristau horietan, sartzeaz bat mozten zizkieten mototsak ikasleei. Are, katoliko bihurtu beharra zuten derrigorrez eta guztiz debekatuta zuten navajo hizkuntza hitz egitea.

Gaur egun, adinak markaturiko hazpegi gogorreko eta bizkar zabaleko Gormanek irmoki uste du bere jakinduria transmititzeko betebeharra duela, batez ere navajo komunitateko adinekoak koronabirusaren mehatxuari aurre egin beharrean diren garaioetan. «Tribuaren biziraupenerako funtsezkoa da gure historia partekatzea, gure zeremonien erritualak elkarrekin partekatzea», nabarmendu du.

Navajo herriak dagoeneko 250 hildako baino gehiago izan ditu covid-19ren ondorioz. Ameriketako Estatu Batuetan New Yorkeko estatuak bakarrik du heriotza tasa handiagoa

«Gaixotasunak bereziki zaharrei eragiten dienez, herri indigenak oso beldurtuta daude. Adinekoek pisu garrantzitsua baitute euren gizarte antolaketan»



Larson familiak etxetik kilometro batzuetara joan behar du bi egunetik behin ur bila.
Mark RALSTON | AFP

UR FALTA LARRIAK ARAZOAK AREAGOTU DITU

Covid-19aren pandemiak navajoen erreserban nagusi den ur falta larria nabarmendu du. Amanda Larsonek etxetik kilometro batzuetara joan behar du hainbat bidoi handi urez betetzeko. Bere hiru seme-alabak ere eraman behar ditu kamionetan. Zeregin nekagarria da eta bi edo hiru egunetik behin egin behar du. Familia osoak parte hartzen du txangoan eta bidaia bakoitzean 200 litro ur baino gehiago hartzen dituzte, edateko, arropa garbitzeko edo euren buruak garbitzeko erabiltzen dutena. «Lotsagarria, iraingarria da nire seme-alabentzat, ezin baitute dutxan bainatu, beste guztiek bezala», aitortu du Larsonek.

Etxean txorrotako urik gabe, navajo askok ez dute koronabirusaren aurkako lehen gomendioa betetzerik: eskuak maiz garbitzea. Hain zuzen, hori da lurralde erdiautonomo zabal honek koronabirusak eragindako 250 heriotza izateko arrazoietakoa bat, AEBetako heriotza tasa altuenetakoa. Navajoen herrian ura gero eta urriagoa da: DigDeep gobernuz kanpoko erakundeak egindako txosten baten arabera, azaleko urak %98 murriztu ziren XX. mendean, tenperaturak gora eta euri kopuruak

behera egin ondoren. AEBetako eremu handiak, batez ere beltzak, mestizoak, indigenak eta nekazari pobreak bizi diren lekuak, azpiegituretan egindako inbertsio federaletatik kanpo geratu dira. Eta egun ur sareetara konektatu gabe bizi diren bi milioi herritarren artean, amerindiarrak dira kaltetuenak. 1868an lur zati handi baten truke Estatu Federalarekin sinatutako hitzarmenean, uraren eskubidea ez zen zehaztu, eta indigenek hego-mendebaldeko estatu idorretan euren kaltetan ehunka presa nola eraiki dituzten ikusi behar izan dute.

Eskuak garbitzeko zailtasunez gain, ur eskasiak bestelako arazoak ere sortzen ditu. Edateko urik gabe, herritarrek kostu txikiko edari azukredunak erosi ohi dituzte, 2. motako diabetes tasa handitzen laguntzen dutenak. Eta patologia hori larrigarria da birusarekin infektatutako pertsonentzat. Urrun dauden putzuetara iristeko denbora luzea behar izateaz gain, putzuetako batzuk kutsatuta daude, mikrobioen zein utzitako uranio meategietako hondakin erradioaktiboen ondorioz. Urdaileko minbizi tasa altua duten arren, ur hori oraindik jateko hazten dituzten animaliei ematen diete.



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

45 minutu

Hamabost minutuko hirari buruz dezente hitz egin da azken asteotan, oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak eskura izatearen beharraz.

Kontsentsua egon badago, baina zalan-tza batzuk plazaratu nituen txoko honetan bertan duela hilabete. Marina Garcesen «distantziarekin kontraesan-korra ez den beste eskala bateko auzotasunaren» ideia aipatu nuen, eta zeinen garrantzitsuak diren, alde batetik, garraio publiko sare indartsua eta, bestetik, lurralde-antolamendu eta mugikortasun estrategia egokiak.

Zerbaiti izena jartzea baino ekintza poetiko zailagorik ez omen dago, eta izena topatu nion aurrekoan ideia horri: “45 minutuko lurraldea”. “La Vanguardia” egunkarian irakurri nuen, Assumpcio Puigek, Oriol Altisenchek, Xavier Marcetek eta Vicent Guallartek idatzitako “La Catalunya de los 45 minutos” artikuluan. Ingeniari eta arkitekto talde horrek argudiatzen du ohiko metropoli eremuaren kontzep-

tua errealitateak berak zaharkitu duela dagoeneko, eta herri sozialki eta ekologikoki arduratsua eraikitzeko irtenbidea ezin dela soilik Bartzelonako metropoli-eremuan konpondu, lurraldea eta hiriburua batera funtzionatuz baizik. Beste modu batera esanda: hiriburuan eta lurraldeko beste edozein lekutan antzeko aukerak izatea bermatu behar da.


Euskal Herrian pentsatu dut hurrena. Zein da 45 minutuko lurraldearen gure baliokidea? Nola egituratu 45 minutuko Euskal Herria? Katalunian agerikoa da Bartzelonaren makrozefalia, eta “La Vanguardia”-ko proposamena ez dator hori aldatzera. Euskal Herrian makrozefalia hori ez da hain agerikoa, Bilbo Handiaren indarra begi bistakoa den arren. Bilboren zentraltasun geografiko ezak eta euskal lurralde egitura deszentralizatuak zaildu egiten dio dominantzia posizio hori irabaztea.

Paul Baran ingeniariak hiru sare mota bereizi zituen. Sare zentralizatuak, deszentralizatuak eta banatuak. Germa Belek, “España capital París” liburuan,

espainiar Administrazioaren inertzia historiko zentralizatzaileak aztertu zituen, Kataluniaren kaltetan izan direlakoan. Katalunian, hala ere, sare zentralizatu bat gailendu da baita, Bartzelona erdigune duena.

Euskal Herria deszentralizatuagoa da alde horretatik, eta hiriburuak dira eremu deszentralizatu bakoitzaren erdigune. 45 minutuko Euskal Herria, une honetan pentsatua dagoen moduan, EAEko hiru hiriburuak euren artean 45 minututan lotzeko proiektu batek egituratuko du –AHTk, alegia–. Geroxeago etorriko da akaso Iruñea eta lau urtean behin aipatzen den Donostia-Baiona InterCity tren. Erronka, iruditzen zait, sare deszentralizatu batetik sare banatu batera pasatzea izango da, non hiriburuez gain, haien artean daude herri handiak ere sare nagusira egoki konektaturik egongo diren autoaren beharrik gabe.

Beranduegi ez ote den, aletxo bat gehiago galdutako batailen zerrendan. •



sare zentralizatua



sare deszentralizatua



sare banatua

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Gonzalez, GAL, CIA

2012ko ekainean saretu genuen NAIZ. Zortzi urte bete berri ditu. Joan den igandean CIAk Gonzalez eta GAL lotuz 1984an egindako txostenari buruz argitaratutako albisteak izan da urte hauetan guztietan NAIZeko albisterik irakurriena, alde handiz gainera. Datu horrek zerbait esan nahi du.

Halere, xelebrea ere izan zen hainbat kazetari sare sozialetan berria gutxiesten saiatzen ikustea, jakina zelako Gonzalez zela GAL taldearen X hizkia, denok hainbeste jakin bagenekielako... 1984ko txostena da, bai; duela urte batzuk desklasifikatu zen, bai, eta gisa bereko beste txosten bat ere argitaratu zuen duela urte pare bat beste hedabide batek, hori ere bai, baina CIAko txosten batean ondoko esaldi hau jaso zela orain ezagutzea sekulako albisteak da: «Felipe Gonzalezek mertzenario talde bat sortzea adostu du terroristak legez kanpo borrokatzeko». 1984ko urtarrian idatzitako esaldia da. Hilabete gutxi batzuk lehenago izan ziren GALen lehen ekintzak.

CIAko txostenetan aliatu bati buruz hain argi hitz egin izana zinez adierazgarria da. Aliatu handia izan baitzen AEBentzat Gonzalez, blokeen garai hartan. «Nahiago dut New Yorkeko metroan labankada bat jaso Moskuko kale seguruetan aspertuta hil baino» esana zuen PSOEko buruak Espainiako Gobernura iritsi aurretik, eta bera izan zen NATOren eta Espainiaren arteko lotura estutu zuena.

Halaxe da, albiste garrantzitsua izan da, eta halaxe ulertu du euskal gizarteak. Ondorioak ere sortu ditu egoera politikoan. “La Razón” egunkariak kaleratu zuen igande goizean berria eta, egiari zor, ez zuen aparteko oihartzunik izan. Bakarren batek iradoki badu ere, Madrilgo egunkariak albisteak argitaratzearekin inolako asmo ezkuturik ba ote zuen aztertzea espekulazio hutsa da, are gehiago, esan bezala, bere eremu sozialean eta politikoan inolako eraginik izan ez zuenean. Ez zuen erreakzio bakar bat ere sortu orduan. Gerora bai, baina oso bestelakoak. PPK, adibidez, Gonzalez babestu du, Aznarrek goeko hamarkadan gobernura iristeko GAL afera erabiliz egin ez zuen bezala. NAIZek bota zuenean hasi zen gaia mu-

gitzen bolo-bolo; hori bai, beste eremu sozial eta politikoetan. Euskal Herrian, bistan da, baina baita Katalunian eta Estatuko ezkerreko sektoreetan ere. Azkenerrako, Sanchez-Iglesias Gobernuari gaia deseroso bihurtu zaio, Lastra eta Echenique bozeramaileek egindako adierazpenek argi erakusten dutenez. Gonzalez babesten agertu da lehenengoa, eta Gonzalezen arduraren ikerketa baztertzen, bigarrena. Hori bai, lurrikaratxoa sortu du horien etxeetan ere, Anduezarren eta Elkarrekin Ahal Duguren hainbaten hitzak entzunda ondoriozta daitekeenez. Anduezak aurrera urratsa egin duela aitortu behar da, kondenaren diskurtso hutsaletik harago.

Albisteak gauza asko utzi ditu agerian. Lehenik eta behin, euskal gatazkari buruz indarrean jarri nahi den kontakizuna faltsua dela agerian geratu da berriro, begien bistan, baita nagusitasun etikotik hitz egin duen hainbaten hipokrisia ere. Denok bagenekien manifestariek Euskal Herriko kaleetan «PSOE, GAL berdin da» oihukatzen zutenean egia islatzen ari zirela, baita Intxaurrondon eta gainerako kasernetan atxilotuak torturatzen zituztela ere, baina horrek de-

Estatu estrategia baten parte izan zen GAL, eta hori onartzea litzateke ardura politikoa asumitzeko modu zuzena

nak ez zuen eragotzi EAJk PSOErekin arnas luzeko aliantza egin izana, ezta gutxiagorik ere. Ardanzaren gobernuak ditugu lekuko. Begi bakarrarekin begiratu nahi izan du atzera hainbatek indarkeriaren gaiaz aritzerakoan. Ahaztura selektiboa inposatu nahi izan da, zoru etikoaren mezu tranpatia gailentzeko.

Izan ere, GALen jardura, tortura edo presoan esku-bideen urraketa bezalaxe, ez zen gertaera isolatua izan, eta horixe geratu da orain berriro agerian CIAko txosten hori ezagutu delarik. Estatu estrategia baten parte izan da gerra zikina, eta Espainiako Gobernuak hori onartzea litzateke ardura politikoa eta historiako asumitzeko modu zuzena. Nekez egingo du halakorik, Estatuaren errai usteldua eta antidemokrati-koa agerian geratuko bailitzateke ezinbestean. •

ETXEA DENERAKO DENEAN

Itxialdiak etxearen kontzeptura aldaketak
ekarri ditu, batzuk geratzeko etorriak

Martxoaren 15a hainbat belaunaldiaren bizitzetan eta historian bertan mugarri bilakatu da dagoeneko, aurreko bizitza eta ondorengoa marrazten duen egun. Egun hartan covid-19aren inaktuari aurre egiteko itxialdia agindu zen Hego Euskal Herrian, ordura arte aurrekarik gabeko konfinamendu zorrotza ezarriz. Egun batzuk geroago hasi eta apur bat malguagoa izan zen itxialdia Ipar Euskal Herrian. Bizimoduan aldaketa nabarmenak ezarri ziren egun batetik bes-

 **JENDARTEA** / Nerea GOTI

Etxeari begiratzeko beste modu bat dago, lanbidez, eskolez, kirolaz eta aisialdirako jardueraz bete zenetik. Litekeena da horietako asko aldi baterako geratzea, baina agian una ere bada eredu alternatiboei ekiteko, Jon Ander Agirre arkitektoak dioenez. Ekain Olaizolarekin batera, konfinamendua marrazteko deia luzatu du.

tera, eta, horiekin batera, espazioei begiratzeko beste era bat ere heldu zen. Betiko espazioen pertzepzioa goitik behera aldatu zen bat-batean.

Azken boladan askotan gogorazi dira gaixotasunek histo-

rian zehar arkitekturan eta hiri-gintzan eragindako izugarrizko aldaketak. Gaitzak zabaltzen zituzten bakterioak eta birusen aurkako borroka haietako askok ekarri zituzten ur garbia hornitzeko sistemak, hirietako sanea-

menduak, kaleen zoladura, etxe-etan pilatzen zen hautsa edota arratoi plagak ekiditeko sistema berriak... Horiei esker, eraikinak eta kaleak “osasungarriagoak” bilakatzen joan dira gutxika-gutxika, gaixotasunak kutsatzeko arriskuari aurre egiten zioten elementu eta diseinu berrien eskutik. Oraingoan, covid-19aren pandemian, nagusiki haizearen bidez kutsatzen den birusa izanik, gure inguru arkitektonikoan ondorioak ez dira oraindik hain ikusgarriak izan, baina jada aldaketa handi bat eman da etxeetan: pribatutasun kontzeptuarekin lotutakoa, zehazki.

David Garcia arkitektoak egoera berria deskribatu zuen BBC katean. Azaldu zuenez, «lehen

Ezkerretik eskuinera, Ekain Olaizola eta Jon Ander Agirre arkitektoak, Donostian duten estudioan.
Juan Carlos RUIZ | FOKU



aldiz, eta, modu globalean, gure etxeko esparruari buruzko ikuspegi berri bat esperimentatzen ari gara. Izan ere, goizetik gaue-ra, etxea gimnasio, eskola, lantoki, gogoeta eta hausnarketa eremu edota lagunekin elkarre-ragiteko espazio bilakatu da».


KONFINAMENDUA MARRAZTU

Euskal Herrian konfinamenduaren bizipena kontatzeko arikete-tako batek marrazki formatua hartu du, "Covid Study Houses" ekimenari esker. Jon Ander Agirre eta Ekain Olaizola arkitekto-ek bultzatu dute egitasmoa. «Egun batetik bestera, milaka milioi lagun etxean konfinatu behar izan dira. Hau da, etxea 24 orduz behar guztiei erantzuteko espazio bakar bilakatu da», planteatu zuten ekimenaren bultzatzaileek, eta, hortik abiatuta, etxeen erretratuak marraztea eskatu zuten, «konfinamenduaren mapa kolektiboa osatzeko».


Twitter eta Instagram bidez deialdia egin eta 200 marrazkitik gora jaso dituzte arkitekto donostiarrek, Euskal Herritik eta nazioartetik, marra zuzenekoak eta trazu gogorragokoak; norberaren logelak, sukaldeak, egongelak... irudikatzen dituztenak, kolorez beteak batzuk eta zuri-beltzean besteak. Marrazki bakoitza segundo batzuek aztertzea etxe batean sartzearen parekoa da, konfinamenduaren espazio intimora hurbiltzeko ariketa xumea, gozoa, naturala.

«BARNEKO BULTZADA»

Itxialdiaren erdian sentituta-ko «bareneko bultzadak» eraman zituen ekimenaren sortzaileak "Marraztu zure konfinamendua" proiektua martxan jartzera. «Ekain hasi zen ideiarekin. Oso barneko bultzada bat abiapuntu hartuta, jendeari bere konfinamen-



Goiko irudian eta lerro hauen ondoan, Olaizolak eta Agirrek «Marraztu zure konfinamendua» ekimenari erantzunez bidalitako etxeen planoetako bi. Covid Study Houses



dua marrazteko eskatu zion, konfinamenduaren irakurketa bat egiteko, kasu honetan, plano batean islatuz», azaldu du Jon Ander Agirrek hasierako une haiek gogoan.

Berehala ikusi zuten bultzada horri erantzuten zioten lagun asko zeudela. «Iritsi diren marrazkiak 200 baino gehiago dira. Gure hurbilketak intenzio jeneralista bat zeukan, ez ikuspuntu arkitektoniko bat», zehaztu dute arkitektoek. «Batzuek kristoren planoak bidali dituzte, baina gure asmoa inoiz plano bat marraztu ez dutenak ere ekimenara hurbiltzea zen, gogoeta edo ariketa hori egitea», argitu dute. Horregatik, oso profesionalak ziren marrazkiak alde batera utzi eta arkatza eta papera hartuta egindakoak jarri dituzte lehen planoan, euren etxeetako irudiak eta bizimoduak marraztu dituzten horien ekarpenei eman diete lehentasuna.

Lehen begirada batean agian ez, baina marrazkiek informazio ugari ematen dute. Agirrek nabarmendu bezala, «denetarik» dago irudietan: abereen joan-etorriak marraztu ditu batek, eguzkiaren norabidea islatu nahi izan du beste batek, desinfekzio protokoloa zorrotz jaso du beste batek...

Askotariko begiradak jaso dituzte, eta, Agirrek nabarmendu bezala, batzuetan gurasoek plano bat marraztu eta ondoren umeek espazioen gaineko euren ikuspuntu propioa islatu dute, adibidez, euren logela detaile gehiagorekin marraztuz, seguruenik jolaserako erabiltzen duten telebistaren eta sofaren arteko espazio zabala irudikatuz... Horrelako ekarpenek, une horretan «norberak bere etxeaz egiten duen irakurketa zein den jasotzen

dute», nabarmentzen du arkitekto donostiarrak.

Konfinamenduak, berez, etxeen inguruan sor daitezkeen irakurketa asko jarri ditu mahai gainean. Erabilera zehatz bat zuten espazioek bestelako erabilera ugari izan dituzte konfinamenduan zehar. Sukaldeak ez dira soilik sukalde izan eta, era berean, logelak eta egongelak lo egiteko edo egoteko eremu baino askoz gehiago izan dira. Bat-batean espazio horiek eskolak hartzeko ikasgela bilakatu dira, gimnasio txiki, Skype bidezko komunikazioak mantentzeko gune, lan egiteko toki... Azken batean, unean uneko beharrei erantzunez egokitu behar izan dira.

ARRAKALA SOZIOEKONOMIKOA

Etxe guztiek antzeko bilakaera izan dute konfinamenduan zehar. Izan ere, guztiek hartu dituzte eskola orduak, lanbide ugari, forman mantentzeko saioak, gaitxoaren zaintza lanak... Aldiz, konfinamendua ez da etxe guztietan berdina izan, ezta gutxiago ere. Argiztapen ona izatea, erosotasun termikoa, balkoiak bezalako kale giroko guneak izatea... funtsezkoa izan da itxialdi oso ezberdinak marrazteko orduan.

«Gure ariketa ez da oso sakona zenbait puntutan. Izan ere, ezagunak badira ere konfinamendua oso espazio murriztean edota gela batean pasatu duten familien kasuak, ez ditugu horrelako adibide asko jaso. Hori bai, tankera horretako planteamenduren bat ikusi dugu, adibidez Londresen pisua partekatzen zuten ikasle batzuek egindakoa», aipatu du Agirrek.

Jasotako marrazkiak herrialde bakoitzean dauden etxeen prototipo nagusien erakusle ere badira. Estatu espainoleko-



BATZUEK LURSAILTXOA EDO BASERRIA NAHI DUTE, BAINA «EROMENA» ALOKAI RUETAN DAGO

Itziar Goienetxea,
Donostiako Etxebila
agentziaren iragarkien
ondoa.
Jon URBE| FOKU

Derrigorrezko etenaldiaren ondoren erritmoa hartzen ari diren higiezin agentzietan zenbait aldaketa nabaritzen ari dira normaltasun berria izeneko honetara itzultzean. Sektorean gauzak ez daude ondo, baina une honetan inorentzat ez dira errazak eta tokatzen dena da «egoera berrira egokitu eta jendeak dituen beharrei erantzuten saiatzea». Horixe da Etxebila agentziako Itziar Goienetxeak utzi nahi duen mezu baikorra. Dioenaren arabera, covid-19ak eragindako konfinamenduak eskaera berriak ekarri ditu higiezin agentzietara. Bezero batzuk lursailtxoak eta balkoi handiagoak dituzten etxeen bila hurbildu dira orain, baina «eromena» alokairuen atalean dagoela dio. «Ez dago ia ezer eta jendea desesperatuta dago».

Bistakoa da itxialdia ez zela berdina izan argiztapen eta aireztapen oneko pisu zabaletan bizi direnentzat eta patiora baino ematen ez duten balkoirik gabeko pisu txikietan bizi direnentzat. Horregatik, ziurrenik, higiezin agentzietan beste gauza batzuk entzuten hasi dira egunotan. Goienetxeak kontatzen duenez, ez dute lehen zuten jarduera maila berreskuratu oraindik, «baina mugimendua egon badago». Agentziara sartzen direnen artean etxea bilatzen duten gazteak dira multzo handiena, 40 urte inguruko adin tarte horietakoak, eta ikusi dute pandemia aurretik ez zegoen beste mugimendu bat lursailtxoren bat bilatzen dutenen artean

edota pisua saldu eta baserri bat eskatzen dutenen taldean.

Hala ere, Goienetxeak dioenez, apartekoa dena alokairuaren arloa da. Dioenez, eskaera oso handia da, eta eskaintza txikia eta garestia. «Ez dago ia ezer eta eskaera izugarria da», komentatu duenez. Egoeraren adibide modura aipatu du ikasleentzat bereziki zuzenduta sortzen diren eskaintzetan ikusi dutela publizitatea agertu eta segituan 50 dei inguru jasotzen dituztela. «Jendea desesperatuta dago alokairuarekin, egoera hain larria da ikasleentzako etxeetan sartzeko eskatzen digutela, baina ezinezkoa da. Kasu batzuetan ikasturtearen iraupena du alokairuak eta, hala ere, berdin die, prest egongo lirateke irailetik ekainera arteko alokairuan sartzeko eta udako hilabeteetan kanpoan izateko, baina ezinezkoa da», zehaztu duenez.

GAUR8ri kontatu dionez, jende askok erosi nahiko luke etxea, baina hori ere ez da erraza. Izan ere, alde batetik prezioaren gutxieneko bat aurreztuta izatea beharrezkoa da, eta, bestetik, hipoteka emango dizun banku bat aurkitzea. Duela gutxi ikusi duen adibide bat kontatu du. Donostian pisu bat erostea nahi zuen bikote baten kasua: hipoteka lortzekotan 1.070 euro ordaindu behar zituzten hilero, eta, ezin ziotenez erosketaren gastuari aurre egin, alokairura jo zuten, bi logela eta trastelekua duen pisu batengatik hilean mila euro ordaintzera.

aren kasuan, ekarpen gehienak pisuetan bizi diren lagunek egindakoak izan dira, landa eremuko oso marrazki gutxi jaso baitituzte. Mexikotik eta beste leku askotatik heldutako marrazkien eskutik, aldiz, argi ikusi dute etxeen diseinuari dagokionez «beste logika batzuetan» daudela.

LANAK ETXEAK ALDATUKO DITU

Konfinamenduaren osteko errealitate berria buruan, etxetara zer aldaketa etorri diren gelditzeko galdetu diogu Jon Ander Agirreri. Bere ustez, «aldaketa nagusia lanaren ikuspuntutik etorriko da». «Lana etxeetan sartu zaigu eta zail izango dugu ateratzea. Dinamika batzuk nagusitu egingo dira seguruenik», aipatu du. Etxeak ez daude lanerako prestatuta, ez dute lan egiteko berezko espaziorik, baina, hala ere, «psikologoa edo fisioterapeuta bazara, agian pentsatu egin beharko duzu ea posible den etxean lan egiteko gune bat atontzea, etxeak erabilera hibridoa izatea, ez izatea soilik pribatutasun eta familia espazio itxi bat».

Zenbait diseinatzailek bide horretan ikusten dute hurrengo joera nagusia, eta ari dira aurreratzen zenbait espaziok dimentsio berri bat hartuko dutela. Adibidez, sarrerak izan ohi duen harrera funtzioan ikusten dituzte aldaketak. Pandemiaren eraginez, etxera sartzeko zapaldu beharreko lehen eremua kutsatzeak saihesteko gune gisa prestatzea planteatzen dute, kaletan erabiltzen diren elementuak bertan uzteko birusari aurre egiteko neurri modura.

ESPazioEN GAINeko GOGOETA

Hala ere, espazioak zehazteaz gain eta pandemiatik harago, Estatu espainolean hirigintza

modeloaren inguruko eztabai-
da falta dela uste du Agirrek.
Egun, etxebizitzak aztertze-
ko elementu nagusiak prezioa, ko-
kapena eta estandar finkoetan
mugitzen diren espazio banake-
tak dira, logela eta komun ko-
purua adibidez. «Arkitekturen
berrirakurketa oso zabala
egin da, baina, gero, aldiz, apli-
kazioa eskasa izan du. Izan ere,
egungo araudi guztiak frankis-
motik datorren familia eredu-
dute ardatz, pisu formatu erre-
pikakor bat da nagusi, logika
espekulatibo baten emaitzen
dena... Sarrera edo biltegiak,
adibidez, egungo familien logi-
katik ateratzen diren estantziak
dira eta horregatik bestelako
espazio bilakatzen ari dira».


Agirrek gaineratu duenez, bi-
zigarritasun araudi berri bat
egiteko planteamendua dago
orain, baina justu erakustaldi
publikoko fasean egon da kon-
finamenduan, «eta ematen du
ez dagoela gogo gehiegirik al-
datzeko. Lege horrek baditu au-
rrerakoiak diren hainbat neu-
rri, baina eskas geratzen da eta
pena bat da kanpoko espazioen
inguruko gogoeta indartsuagoa
ez izatea».

Ingurura begira, Agirrek aipa-
tu du bistakoa dela hirietako za-
balgune berrietan balkoirik ez
duten etxe tasatuak eta kristo-
ren terrazak dituzten promozio
pribatuko etxebizitzak nagusi-
tzen ari direla. «Askotan uste
da arkitektoek definitzen ditu-
gula etxeak, baina oso baldin-
tzatuta gaude araudiekin: pro-
mozio bakoitzak ezartzen ditu
zenbat etxebizitza, zenbat loge-
letakoak... egin daitezkeen. Fa-
milia ikuspegitik ikusita, ez da-
go irekitasunik».

Eredu berritzaileen ikuspun-
utik, Katalunian edota Madri-
len martxan dauden proiektu
batzuk aipatu ditu Agirrek. Ho-
rietako bat La Borda izeneko

**Arkitekturaren berrirakurketa zabala egin bada-
ere, aplikazio eskasa izan du gero. Agirrerren
esanetan, familia eredu klasikoari eta
espekulazio logikari oso lotuta jarraitzen baitu**

**Arkitekto donostiarraren ustez, aldagetek
erresistentzia asko aurkitzen dituzte. Gainera,
beldur da pandemiaren osteko izua interes
jakinen tresna bihur daitekeelako**



«Marraztu zure
konfinamendua»
proposamenari erantzunez
bidalitako beste
marrazkietako bat. Covid
Study Houses

egitasmo katalana da. «Etxebi-
zitzak eraikitzen ditugu komu-
nitatea eraikitzeko» da proiektu-
aren lelo nagusia. Helburu
nagusien artean planteatzen
dituzte «etxebizitza duinak eta
eskuragarriak bermatzea eta
erabilera espekulatiboak
saihesteko alojamenduaren
desmerkantilizazioa».

ETXE KOOPERATIBOEN EREDUA

Aldaketa berritzaileek ez dute
erraz izango bidea egitea. Covid-
19aren osteko «normaltasun be-

rrian» aldaketak egiteko erresis-
tentziak ikusten ditu arkitekto
donostiarrak. Aipatu du dagoe-
neko aldaketa batzuk eman di-
rela mugikortasunarekin lotuta,
lanera industrialde edo hirigu-
neetara ezinbestean mugitzeko
beharrari dagokionez adibidez.
«Bilbon edota Donostian bizi
eta Gasteizera lanera joatea... Ar-
lo horretan uste dut gauzak as-
ko aldatuko direla etorkizunean
teleanaren etorrerarekin», na-
barmendu du. Aukera bat ere
izan daitekeela uste du, «azken
hamarkadetan gailendu den
mugikortasun totalaren aldeko
joera zuzendu eta hurbiltasune-
ko hirigintza eta mugikortasuna
ardatz izango dituen eredu ba-
ten alde pausuak emateko».

Agirrek azaldu duenez, «mu-
gikortasunari eta hirigintzari
dagokienez, higiezinaren espek-
ulazioak erro indartsuak ditu na-
gusi den sistema ekonomikoan.
Egoera aldatzen saiatzen ari ga-
ra, baina erresistentzia handiak
izango dira indar ekonomiko
handia duten holding eta enpre-
sen aldetik. Ikusiko dugu horien
aurrean herritarrek zer-nolako
bultzada egin ahal duten, zer
posizio hartzen duten borroka
horretan, ea zerbait aldatzea lor-
tzen den edo denak berdin ja-
rraituko duen...».

Etxebizitza eskubidearekin
dagoen arazoa, Agirrek nabar-
mentzen duenez, «endemikoa
da Estatu espainolean». Ares-
tian aipatutako Bartzelonako
bezalako eredu ez espekulatibo-
ek zailtasunak dituzte aurrera
egiteko, baina egon badaude
etxebizitza kooperatiboan lan
egiten duten ekimenak. Horieta-
ko bat Donostian bertan mar-
txan den Abaraska proiektu ko-
operatiboa da.

Egitasmo horren bultzatzaile-
en artean dago Jon Ander Agi-
rre. Lau urte dela jarri zen abian
Donostian «eredu indibidualis-

tatik at» dagoen proiektua.
«Ohiko familia ereduaren alde-
an, bizitokia zaintza, denbora-
ren ekonomia, ekonomia erre-
produktiboa eta beste hainbat
aspektu modu politikoan uler-
tzeko eta lantzeko espazio gisa»
ulertzen du egitasmoa.

Etxebizitza kooperatiboan in-
guruko ekimenak batzen dituen
Euskal Herria Sarea ere aipatu
du Agirrek. Oro har «udalek
nahiko jarrera hotza» duten
arren, pixkanaka-pixkanaka ho-
rrelako ekimenak bidea egiten
doaz. «Poliki, zailtasun handie-
kin eta ahalegin pertsonal ikara-
garriarekin baina gailentzen jo-
ango den eredu izango da».

IZU FAKTOREAREN ERAGINA

Aurreko pandemiari begiratuta,
adituek gaixotasunak arkitektu-
ran eta hirigintzan eragin dituz-
ten aldaketa modernizatzaile-
tan jartzen dute fokua. Agirreri
burura etortzen zaion lehen ga-
koa pandemiak gizarteetan sor-
tzen duten izuarekin du zeriku-
sia. «Pandemiek izua sortzen
dute eta beldurra jendearen
kontrako tresna indartsua» izan
daitekeela uste du.

Historian zehar sortu diren
pandemien inguruan «higieni-
zazio logika horretan» gizarte-
aren aldaketa handiak eragin di-
rela nabarmendu du, «baina ez
beti gizarte sektore guztien one-
rako». Ildo horretan, ezkutuko
beste intentzio ekonomiko ba-
tzuk bilatzen zituzten hirigintza
operazio oso handiak bultzatu
izan direla gogoratu du.


«Hasierako fase batean gaude
oraindik, baina iruditzen zait
horrelako pandemiak izu oro-
kortua sortzen dutela eta horren
inguruan munstroak eraikitzen
direla», komentatu du. Agirre-
ren ustez, «gakoa izua da eta bo-
tereak nahi dituen aldagetak
egiteko erreminta bezala erabil-
tzen du».



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



EMAKUME AITZINDARIAK

«Emakumeak teknologiaren historian»,
ahantzuraren aurkako urrats txiki bat

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Funtzio garrantzitsua betetzen duen tresna baten aurrean gaudela, haren asmatzailea ezezagun badugu, seguruenik gizon bat etorriko zaigu burura berehala. Hala ere, teknologiaren arloan ez ezik beste guztietan ere, emakume askok ekarpen nabarmenak egin dizkiote gizateriaren aurrerabideari. Eurak, ordea, ez dira nabarmendu. Ezezagunak dira kasu gehienetan. Gaur egun emakume horietako askoren gainean gero eta gehiago dakigu; esate baterako, Gontzal Avilak Erein argitaletxearen eskutik argitaratu berri duen lanari esker, besteak beste. Joan den astean aurkeztu zuen «Emakumeak teknologiaren

Hutsune bat sumatu zuen Gontzal Avilak teknologiaren historia kontatzean. Leonardo da Vinci, Arkimedes... eta emakumerik bat bera ere ez. Teknologian ez ezik beste arlo askotan ere ekarpen asko eta garrantzitsuak egin dituzte emakume askok, ordea. Horiek ahanzturatik ateratzeko «urrats txiki bat» egin du bere liburuarekin.

historian” liburua, teknologiaren esparruan ekarpenak egin dituzten emakume asmatzaileen eta aitzindarien istorioen berri ematen duena.

Honela dio egileak hitzaurrean: «Gutxik lortu dute aitor-tza, beren asmakizunetatik

eta lanetatik bizitzea eta gizartearen esker ona jasotzea. Gehienak, tamalez, ez dira aintzat hartuak izan, eta, horien artean, asko dira gutxie-tsirik eta zangopilaturik bizi izan direnak. Makina bat hil dira pobrezia gorrian ere,


Iosune eta Gontzal Avila,
«Emakumeak
teknologiaren historian»
liburua aurkeztu zuten
egunean. EREIN

haien sormenaz baliatu den gizarteak baztertuta eta ahaztuta, askotan».

HUTSUNE NABARMENA HEZKUNTZAN

Gontzal Avilak irakaskuntzan dihardu, azken urteetan teknologiaren arloan, eta bere jardun horretatik sumatu du horrelako lanen beharra. Iosune Avilak, berriz, liburuaren ilustrazioak egin ditu. Aurkezpenean, bere lana egiteko lehen aldiz tableta bat erabili duela esan zuen eta, 150 emakume horien bizitzari dagokionez, irakurle gisa liluragarriak iruditzen zaizkiola haien atzean dauden istorioak, oraingo eta aurreko belaunaldietako emakumeek aurrera egiteko gainditu behar izan dituzten oztopoak ikusita. Halaber, objektuen ikuskera aldatu egin zaiola esan zuen ilustratzaileak: «Hozkailua ikusten dudanean, ez da lehengo objektua, baizik eta zerbait sakratua, haren atzeko istorioa, asmatu zuen emakumea eta beste emakume asmatzaileen bidea ikusten ditudalako».

Egileak ohartarazi zuenez, liburu hau irakurtzen duenak ez du historia liburu bat aurkituko, istorioen liburu bat baizik: «Izandako arazoen eta aurrera ateratzeko egindako ahalegiaren liburua». Lanaren hazia emakume batek, Hedy Lamarrek, jarri zuela gogoratu zuen. Emakume haren bizitzak harritu egin zuen. Zinema munduan oso ezaguna zela, handik kanpo oso garai zailetan bere kabuz teknologia garatzeko gai izan zen, Ingeniaritza ikasi eta torpedoak gidatzeko sistema bat asmatu zuen. Hori izan zen arreta eman zion lehen biografia. Ondoren, beste batzuk irakurri zituen, hala nola Ada Lovelacerena, liburuiko lehen biografia, haien hurrenkera alfabetikoa baita. Eta ikertzen ha-





si zen. Ikusi zuenez, Interneten bazegoen «mundu bat» teknologiarekin lotutako emakumez hitz egiten zuena: blogak, Wikipedia... eta informazioa biltzen hasi zen, hezkuntza mundutik hutsune nabarmen bat sumatzen zuelako: «Leonardo da Vinci, Arkimedes eta beste asmatzaile batzuez hitz egiten da beti, baina badaude emakume oso interesgarri batzuk ere asmakuntzen munduari lotuak».

EUSKALDUNAK ERE BAI

Liburuaren azalean hegazkin-gintzan jardun zuten lau emakume ageri dira. Haietako bat, Bessie Coleman, Texasko emakume beltza, umetan eskolara joateko egunero sei kilometro egin behar zituen. Abiazio lizentzia lortu zuen lehenengo emakume afroamerikarra izan zen. Beste batek, Beatrice Tilly Shillingek, Bigarren Mundu Gerrako hegazkinek zuten arazo bat konpondu zuen: ginballet eran jaisten zirenean, erregairik gabe gelditzen ziren bat-batean, eta emakume hark aurkitu zuen konponbidea.

Teknologia adarretako ikasketak hautatzen dituzten emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino askoz apalagoa da. Andoni CANELLADA | FOKU

Horiek eta beste laurogeita lau emakumek osatzen dute lehen kapitulua.

Azken 200 urteetakoak eta atzerritarrak dira gehienak, zenbait kontinentetakoak eta askotariko hainbat arloetakoak: traktore enpresa bat daukan Indiako emakume bat zein Afrikako beste bat, trafikoa zuzentzeko robot bat asmatu zuena.

Edonola ere, euskaldunek edo euskal jatorrikoek ere badute tarte bat, bigarren kapituluan, hain zuzen. Sei emakumeren istorioa kontatzen du, eta gehien harritu zuten biak aipatu zituen Avilak. Cesarea Garbuno errenteriarrek Estatu espainoleko lehenengo petrolio-findegia abian jarri zuen,

«Emakumeak teknologiaren historian» lanak teknologiaren esparruan ekarpenak egin dituzten emakume asmatzaileen eta aitzindarien istorioen berri ematen du

Hezkuntza mundutik hutsune nabarmen bat sumatzen zuen Gontzal Avilak: «Leonardo, Arkimedes eta horiez gain, badaude emakume oso interesgarriak ere asmakuntzen munduan»

zioa aurkitzea ez dela erraza izan dio Avilak, bai aurkitu ez duelako, bai atera nahi izan dituen ahanztura horren adibide direlako: «Horien inguruan badago zer ikertua».

«URRATS TXIKI BAT BAINO EZ»

Hezkuntza arloan erabilgarria da liburua, zalantzarik gabe, baina egileak uste du edozeinek irakurtzeko moduko istorioak kontatzen dituela. Gehienak ezezagunak eta hunkigarriak, denak ere jakingarriak.

Egileak GAUR8ri diotsanez, liburu honekin jendeak gozatzeari nahi du lehenik eta behin: «Istorioak nahikoa erraz irakurri eta ulertzeko modukoak dira, irakurketa atsegina». Dioenez, zailtasun bakarra kontu teknikoren bat izan daiteke; horregatik, azken atala zenbait kontzeptu argitzeko glosario bat da. Hori bai, egileak gustura jasoko luke irakurleen iritzia, eta akatsen bat topatuko balute hura jakinaraztea ere eskertuko luke.

Liburu hau baino lehen, saiakera eta narratiba liburu eta artikulua ugari idatzi ditu Avilak. 2018an, azken lan honen beste bertsio bat argitaratu zuen hezkuntzari begira. Hala ere, bildutako biografia eta informazio asko bazter gelditu ziren eta iaz Ereinek argitaratutako bilduma osatzeari ekin zion. Edonola ere, oraindik asko falta dela dio, «teknologiarekin, asmakizunekin, enpresarekin eta beste hainbat arlorekin zerikusia izan duten emakumeak nabarmentzeko eta egokitu izan zaien egitekoa zalantzan jartzeko». Liburu hau, beraz, urrats txiki bat baino ez da. «Liburua bukatu ondoren, artxiboan beste istorio asko ditut oraindik, hemen sartzerik izan ez ditudanak. Horre-

baita Ameriketako Estatu Batuetatik Euskal Herrira petrolio ekartzeko lehen ontzia ere, oraindik kaleak argiztatzeko bale-gantza erabiltzen zenean. Bigarrena, Mercedes Diaz arabarra, Vasco-Navarro tren igarotzen zen Laminoriako geltokiko burua izan zen joan den mendeko 20ko hamarkadan. Akats bat zela-eta, tren bati bide eman zion eta istripu bat izango zela konturatu zen berehala. Elektrizitatea mozteko agindua eman eta istripua saihestea lortu zuen. Horren ondorioz, baina, agindu hura zuzena ez omen zenez, «eta segur aski emakumea zelako», erbesterratu egin zuten Madrilera.

Euskal Herriko emakumeen gainekoa da hirugarren atala ere, bertako zenbait emakume-kolektibo baitira protagonistak: batelariak, liho-ehuleak eta zigarrogileak, «beren familien, herrien edo hirien bilakaeran nolabaiteko protagonismoa izan dutenak».

Laugarren kapituluak beste 58 emakumeren gaineko informazio laburra ematen du. Haietako askori buruzko informa-



gatik, zeregin handia dago honi dagokionez. Interneten badaude blogak, wikiak eta abar, eta maiz pertsonaia berriak aurkitu daitezke; beraz, lan honek jarraipena izan dezake, jakina. Are gehiago, agian, emakume euskaldunen munduari dagokionez. Horiek benetako aurkikuntza izan dira. Hor ere bada go zereginik».

GIZON BATEN IZENEAN

Istorio horien guztien artean denetatik dago, bukaera tristeak eta zoriontsuak. «Bi aldeak ditu liburuak, istorio tristeak, eta oro har tristea da ezkutuan egon izana, eta alde pozgarria, orain azaleratu izana». Tristea da, edonola ere, lehenago eza-gutu ez izana, egileak dioenez.

Aurkako testuinguru batean, aitorpenik jasoko ez zutela jakinda, are onarpenik ere ez zutela jakinda eta maiz gaizki ikusita ere, emakumezko haien meritua handiagoa dela uste du Avilak. Azaldu duenez, mendeetan egiten zituzten asmakuntzak eta sorkuntzak ezin izan dituzte beren izenean jarri ere egin, askotan senarraren, aitaren edo anaia baten izenean jarri behar zituzten.

Emakume haien asmakizun asko etxeko tresnak ziren: hoz-


kailua, ontzi garbigailua... «Ezinbestean, emakume askok beren sormena etxeko bizitzaren inguruan garatu dute. Baina hortik ere atera behar ditugu, badaude-eta beste arlo batzuetan aritu diren emakume asko: informatikan, telekomunikazioetan, astronomian, astronauta gisa... Eta, gainera, emakumeok, horrekin batera, borrokatu behar izan dute enpresaburu askorekin, gizartearekin... Izan ere, askotan gizartea baliatu egin da emakumeok egindako asmakuntzez eta haietako askok gaizki bukatu dute, pobrezia gorrian, ahaztuta bizi izan ondoren. Izugarria da, herri baten alde egin duten esfortzua eta gero nola ibili behar izan duten, abandonatuta».

Denak ez dira asmatzaileak eta, esan bezala, badira teknologiako hainbat alorri lotutako-

«Askotan gizartea baliatu egin da emakumeok egindako asmakuntzez, eta haietako askok gaizki bukatu dute, pobrezia gorrian, ahaztuta bizi izan ondoren»

Teknologia ikasketak hautatzen dituzten emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino askoz apalagoa da. Liburuak hori nabarmentzeko balio izatea nahi luke Avilak

Iosune Avilak egin ditu liburuko ilustrazioak.
EREIN



ak. Adibidez, hegazkinlari asko daude, eraikuntzako egiturak egiten zituztenak, energia eta ingurumenari lotutakoak; ugarri dira, halaber, autogintzan jardun zutenak ere. «Gaur egun autogintzan ditugun hainbat aurrerapenen aurrekariak emakumeotako batzuek sortuak dira», azaldu du egileak. «Badirudi emakumea eta autoa, edo emakumea eta teknologia beti bateraezinak izan direla, baina emakumeek egindako hainbat asmakuntzak gezurtatu egiten dute irudipen hori».

Gaur egun zientzia eta teknologia adarretako ikasketak hautatzen dituzten emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino askoz apalagoa da, eta arlo horietan lanpostu eskarriagoak dituzte. Horri ere erreparatu dio Avilak, eta bere lanak hori nabarmentzeko balio izatea nahi luke: «Egunka-

rietan askotan irakurtzen dugu lanpostu asko teknologiarren arlotik etorriko direla, bada, arrakala hori txikiagotzen eta gauza horiek bideratzen badugu bai erantzukizuna». Oso garrantzitsua iruditzen zaio hezkuntzatik hori bultzatzea.

Bestelako lan askotan ere jardun izan dute emakumeek aspaldi luzetik. Baita gizonen lantzat jotako askotan ere. «Erdi Aroan katedralen eraikuntzan aritzen zirela badakigu, denetarik lanak egiten», azaldu du. «Askotan pentsatzen dugu lehengo egoerak txarrak zirela, baina pentsa dezakegu azken mendeetan zenbait alorretan okerrera egin dutela. Hori historialariek esan behar dute eta ez naiz horretan sartuko, baina atentzioa eman zidan Erdi Aroan emakumeak zer eta zenbat lanetan zebiltzan ikusteak».



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Gaur da eguna

Egun luzeena. 2020 bi-surte luzeko egun luzeena. Gaur, ekainak 20, gaueko 23:43an izango da udako solstizioa. Orduantxe egongo da, ize-nak berak dioen bezala, “Eguzkia gel-dirik”, ortzimugarekiko bere goranzko ibilia eten eta beheranzkoa hasiko duen unean, alegia. Horregatik hauspotzen dugu, antza, Eguzkia, gaurko egunez, su handi bat piztuz. Bere indarrak udan iraun dezan, uzta oparoa izaten lagundu dezan, edota, zergatik ez, oporretan *morenito* jar gaitzen. Hori dena, baina eta batez ere, suaren bidez purifika gaitzen, erretzen gaituena sutan errez, eta suaren gainean jauzi eginez, gure gorputzeko espiritu txarrak garbituz. Hori bai, koronabirusak garbitzeko ez du balio antza, eta are, birusa zabaltzeko bide izango delakoan, debekua ezarri eta solstizioko surik gabe geldituko da aurten herritar andana.

Txirrindulariok aspaldidanik dakizkigu gidariekin metro eta erdia kalkulatzeko dituzten zailtasunak... ezin da herritarrekin fio. Horregatik dira lantoki, ikastetxe eta tabernak espazio seguru bakarrak, segurtasun eta osasun neurrien adibide paradigmaticoak direlako. Horieta koren bati sua eman ezean, ez da beraz segurua izango gaurko egunez surik piztea. Dena dela, konfinamenduaren eraginez naturak kutsadurari buelta eman dionetik, ikasleek pape-rezko apunten ez dutenetik... ez da go jada ezer sutan erretzekorik. Eta gelditzen den apur hori ere laster desagerrarazi eta balioan jarriko du Repsolek Bilboko Portuan eraikiko duen energia berriztagarrien plantak. Pasa den urtean 2.300 milioi eu-

roko irabazi netoa izan zuen enpresak, 80 jarriko ditu lau urteren buruan martxan izango den planta eraikitzeko. Gorbata berdea jantzita eman du apustu handi horren berri J.J. Imazek, munduko ehun enpresari kutsatzaileen artean egotarik merezi ez duela aldarrikatzeko edo. Buelta eman nahi diote egoerari eta planta pionero horren bidez karbonoan neutroak izango diren erregai sintetikoak ekoiztu nahi dituzte; eguneko 50 barril! Ekarpen itzela, determinantea, Petronorrek egunero ekoizten dituen 220.000 erregai barrilak deskarbonizatze bidean.

Konbustioak nola funtzionatzen duen dakien inork behar bada galdetuko du zer demontre ote den karbonoan neutroa den erregai bat. Ba begira, Muskizko findegiak

airera botatzen duen karbono dioxidoaren zati bat bildu, energia eolikoa erabiliz uraren elektrolisitik ateratako hidrogenoarekin presio eta temperatura handietan nahastu eta produktu gisa lortzen diren erregaiei deritze karbonoan neutroak. Erregai horiek auto, hegazkin edota kamioiek erretzen dituztenean, karbono dioxido bilakatuko dira berriro, baina aurrez Muskizen botatakotik aurreztu direnez, balantzea netoa da. Ez hori bakarrik, pirolisi instalazio bat ere egingo dute, aurrez aipaturiko hiriko hondakinak errez, karbono dioxido gehiagorik elikatze erregai sintetikoak. Ez al da ideia biribila?

Gaur da eguna, solstizioko suak ekidinez herritarren osasuna zaintzeaz gain, planetaren osasuna ere zaintzen ari garena.... •



Koronabirusak garbitzeko ez du balio, antza. Gorka ZOZAIA

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Galdetu Otegi

ikasleei beti esaten diet, unibertsitateko epaimahai batean, hobe dutela, galdera bati erantzuten ez dakite, horixe esatea: ez dakitela. Edozein gauza erantzutea baino hobe dela hori, alegia. Entsearazi ere egiten diet: «Oso galdera interesgarria, eskerrik asko auzi hori seinalatzeagatik; oraintxe ez nuke jakingo ondo erantzuten, baina pentsatuko dut horretaz, bai». Horren sartua daukagu gure buru-barrenetan galdera-erantzunen jokoa, zerbait ez dakigula onartzen ere entseatu egin behar dugula, bai. Ez da ikasleen kasua soilik, jakina, eta ez da epaimahai akademikoetan bakarrik gertatzen den zerbait; egunerokoan ere, erantzuna jakitea gustatzen zaigu, beti, edo hala dakigula erakustea, horrekin zerbait irabaziko bagenu bezala.

Lankideen artean, ikasleez ari garela, kontrakoa esan izan ohi dugu maiz, ordea: ikasle bati, erantzunetan baino gehiago, egiten dituen galderetan antzematen zaio la gaia menderatzen duen, behar bezala ulertzen ari den; ikasle finek galdera finak egiten dituzte. Galdera fina, galdera pertinentea da; auziari bete-betea jotzen diona. Auzia ondo destatu, eta jo. Horixe da gai bat ulertzen hasteko urratsik garrantzitsua.

Emantzat jotzen da, ordea, denok dakigula galderak egiten. Ikasle bati esan diezaioket, erreparorik gabe, gaizki erantzun didala, eta zero jarri, gorriz, pedagogia berriei jaramon handiegirik egin gabe; gaizki galdetu didala, ezin diezaioket esan. Esan behar diot: «Ez dakit ondo ulertu dizudan; hau-eta-beste al da galdetu nahi zenidana?». Nahiz eta, batzuetan, galderak egiten dituztenean badirudien herriko jaietako barraketan denok ezagutu ditugun eskopeta okertuekin ari direla tiro egiten *–tiropitxonean* ari direla, zeri joko gehiegi axola gabe. Baina, horrelakoetan ere, gaizki galdetu didala, ez, ezin diot esan ikasle bati. Nik ez, guk ez; Arnaldo Otegi bai.

Atzo ikusi nuen bideoa: “El Diario Vasco”-ko kazetariak pintaketei buruz galdetu zion Otegi, eta hark,

erantzun, ez zela hori galdera ona; CIAk Felipe Gonzalezi buruz esandakoen biharamunean zer eta pintaketei buruz galdetzea, une honetan pertinente den auziari oso oker destatzea dela. Galdera kaskarrari erantzun ona, horra. “El Diario Vasco”-ko kazetaria ez zen *tiropitxonean* ari, ordea; ehizan ari zen serio. Hauteskunde bezperetan, botere handia du zeri buruz hitz egin eta zeri buruz isildu behar dugun erabakitzeak ahalmena duenak. Eta, esango nuke, orain datozkigun hauteskundeetan botere hori nabarmen hazi zaiela kazetariei: jendez beteriko aretoetan mitinik nekez egingo denean, herriz herriko hitzaldi eta agerraldiak nola egingo diren oso ondo ulertzen ez dugunean, hedabideen bidez iritsiko zaigu, nagusiki, hautagaien ahotsa herritarroi. Hori horrela, garrantzi handia du hedabideetan zeri buruz hitz egingo den erabakitzeak. Hauteskunde-kanpaina honetan ma-

CIA, birusa, Baionako osasun-langileen borroka, hemengo arrazismoa eta Donostiako metroa, batean; Eusko Jaurlaritza, Urkulluren dirulaguntzak, birusa eta kirola, kirol asko, bestean

hai gainean jarri beharreko auziak zein diren erabaki dezakete, eta hor ez dago eskopeta okerrentzat lekuri *–pentsatu, destatu eta jo–*.

Gauden adi, beraz. Hedabide bakoitzak bere barraka irekitzen duenean, ikusi zein sari diren lehenengo lerroan zintzilik dauzkatenak, begi erraldoidun panpinak nola. Esaten ariko zaizkigu horiek direla irabazi nahi ditugunak, horiek direla inporta dutenak. Oraintxe egin dut proba: CIA, birusa, Baionako osasun-langileen borroka, hemengo arrazismoa eta Donostiako metroa, batean; Eusko Jaurlaritza, Urkulluren dirulaguntzak, birusa eta kirola, kirol asko, bestean. Norena den barraka bakoitza? A ze galdera. •

Duela hiru urte sortu zuen Jakindun hezkuntza plataforma lagun talde batek finantziazio pribatuarekin. Euskarazkoa da, doakoa eta zientzia kontzeptuak erraz eta labur azaltzen dituzten bideoz hornitua dago. Plataformaren helburu nagusia DBHko eta Batxilergoko ikasleen eskura euskarazko bideoak jartzea da, azalpen errazekin, zailak egiten zaizkien ikasgaiak hobeto uler ditzaten.

Itxialdiarekin, egun batetik bestera, hezkuntza etxe barrura sartu da eta *online* modua nagusitu da. Inor ez zegoen prest eta batzuk besteak baino abilago moldatu dira, baina derrigorrezko esperientua sekulakoa izan da. Jakindunekoek espero dute tsunami moduan etorri den ikasgaia etorkizunerako baliatzea. Ez dadila ezerezean geratu.

Covid-19ak eragindako krisiak arlo asko astindu ditu. Hezkuntzarentzat zer kolpe klase izan da?

Une batetik bestera eta prestakuntza aproposik izan gabe, hezkuntza mundua *online* modura pasatu da. Horretarako beharrezkoa da formakuntza –irakasleak, ikasleak eta, oro har, hezkuntza komunitate osoa prestatuta egotea–, beharrezkoak dira tresnak –ordenagailuak, konexioak...– eta baita edukiak ere. Ez da gauza bera eduki bat modu presentzialean ematea edo *online* ematea. Berehala konturatu ginen olatua, tsunamia, ailegatu zela eta ez geundela batere prestatuak horri aurre egiteko.

«Hezkuntza etxe barrura sartu denean, galdu egin du ikasleen arteko desberdintasunak orekatzeko gaitasuna. Ez geunden prestatuta; ez bakarrik tresnak ez genituelako prest, filosofikoki ere ez geundelako prestatuta ‘online’ hezkuntza horretarako»

Erantzuna asimetrikoa izan da; ikasle batzuek besteek baino baliabide gehiago izan dituzte eta irakasle batzuk besteak baino azkarrago moldatu dira. Edukiak ere gutxi samar eta sortu egin behar. Beti izan dugu buruan *online* formakuntza, *online* hezkuntza, beharrezkoa zela hiperkonektatutako mundu honetan. Baina ez geunden horretarako prestatuta. Ikusi dugu hezkuntza “pribatizatu” egin dela nolabait. Finean, modu presentzialean egitean, hezkuntza modu publikoan egiten da; ba-



«Nire kezka da datorren ikasturtea modu presentzialean hastea eta kito, pasatutakoaz ez ezer ikasi izana»

liabide bertsuak daude denentzat. Desberdintasunak orekatu egiten dira, ez guztiz hala ere. Baina modu presentzialean ari garenean irakaslea eta sistema orokorrean saiatzen dira desberdintasunak orekatzen edo, gutxienez, samurtzen. Aldiz, hezkuntza etxe barrura sartu denean, galdu egin da orekatzeko gaitasun hori. Eta galdu dugu ez geundelako prestatuta; ez bakarrik tresnak ez genituelako prest, filosofikoki ere ez geundelako prestatuta *online* hezkuntza horretarako.

Presentzialetik «online»-ra, zein desberdintasun daude? Zein dira gako nagusiak?

Konturatu gara –eta bagenekien aurretik ere– klaseak emateko modu desberdinak daudela. Orain arte erabili den metodoa da horietako bat: klase magistrala. Irakasleak edukiak azaltzen ditu eta ikasleek eduki horiek entzun eta barneratu egiten dituzte. Bideo dei batean arreta eta harremana mantentzea oso zaila da. Frogatuta dago psikologikoki arreta mantentzea oso zaila izaten dela tresna telematikohoriekin. Horregatik, beharrezkoa da beste modu edo metodo batzuk erabiltzea: proiektuak proposatu, edukiak bideoetan edota bestelako euskarrietan zabaltzea, zalantzak irakaslearekin partekatu... Badaude moduak eta metodo horien inguruan modu teorikoan aritu da orain arte hezkuntza oro har. Baina bat-batean, egun batetik bestera, metodo horiek erabiltzera behartuak egon gara. Horregatik sortu da estres une hori.

Ikasketa telematikoak ikaslearen parte hartzea bultzatu behar du gehiago, ezta?

PAUL RIOS

JAKINDUN HEZKUNTZA PLATAFORMAREN SORTZAILEA

«Online» hezkuntzako edukiak eguneko 24 ordutan daude eskura. Horrelakoak sortzen ditu Jakindunek, oraingoz, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat. «Online» hezkuntza eta presentziala osagarriak izan daitezke eta ikusitakoak ikusita, biak nola uztartu eta indartu serio pentsatzen hasteko unea dela uste du Riosek.

Amagoia Mujika Telleria

Bai. Ikasleak bere etxean landu ditu edukiak, askotan bakar-bakarrik. Une askotan gurasoen laguntza ere behar izan du. Eta zalantzak irakaslearekin partekatzeko aukera ere izan du. Baina modu presentzialeko klase magistral hori *online* modura eramatea ez da irtenbidea. Horrek ez du funtzionatzen eta beste bide batzuk irerki behar dira. Zorionez, irakasleek sekulako ahalegina egin dute moldatzeko eta baita familiek ere. Baina hiru hila-bete hauetan egoera oso-oso konplexua izan da. Akaso eutsi diogu, egindakoa nahikoa izan da ezohiko egoerari eusteko, baina etorkizunari begira beste metodo batzuk eta edukiak behar-beharrezkoak dira.

Jakindun hezkuntza plataformak, hain justu, laguntza bideoak eskaintzen ditu; ikasleentzat, irakasleentzat eta gurasoentzat lagungarri.

Duela hiru urte sortu genuen plataforma, erabat egoera desberdinean. Gure asmoa euskarazko eta kalitatezko materiala *online* eta bideo formatuan eskaintzea da. Lagun talde bat gara eta finantziario pribatuarekin aritzen gara, ez dugu laguntza publikorik. Elkarte bat sortu dugu hau guztia aurrera eramateko eta ez daukagu irabazteko asmorik.

Orain, bizi izan dugun egoerarekin, konturatu gara baliabideak izatea oso garrantzitsua dela. Jakindun proiektuak ez du betetzen, ezta gutxiago ere, dagoen hutsunea. Baina gure helburua izan da irakasleei, ikasleei eta gurasoei laguntzeko tresna bat eskaintzea.

Nik bi seme dauzkat eta konturatuta nengoen askotan etxeko lanak egiteko bideoak eta bestelako baliabide tekno-

logikoak erabiltzen zituztela. Ni eta beste batzuk konturatu ginen euskaraz ez dagoela baliabide asko. Eduki gehienak gazteleraz eta ingelesez daude. Eta gure haurrek askotan ez dakite erro karratua nola esaten den gazteleraz. Garrantzitsua ikusten genuen euskarazko baliabideak izatea. Guk Jakindunen prestatzen ditugun bideoek hezkuntza prozesuarekin jarraitzeko laguntza eskaintzen dute eta euskaraz.

DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako bideoak dira eta eduki zientifikoak dituzte.

Bai. Matematika, fisika eta kimikarekin hasi gara. Gure baliabideak ez dira infinituak eta nondik hasi aukeratu behar genuen. Gure inspirazioa gaztelerazko Unicos plataforma izan da. Oso arrakastatsua da eta konturatu ginen kontsulta gehienak matematikaren ingurukoak zirela. Horregatik hasi ginen horrekin. Baina etorkizunari begira gure asmoa da edukiak zabaltzea DBH eta Batxilergoari begira. Eta, horrez gain, akaso Lehen Hezkuntzarekin ere hasiko gara.

Garrantzitsua da «online» hezkuntzan euskarak presentzia izatea.

Zalantzarik gabe. Hizkuntza batek bizirik egoteko toki guztietan egon behar du. Sarean euskararen presentzia indartzeko ahalegin ugari egiten dira, baina konturatzen ginen hezkuntzaren arloan gabezia zegoela. Egon badaude hezkuntzari lotutako edukiak, baina ez asko.


Orain derrigorrez ezagutu dugu «online» hezkuntza, egoerak behartuta. Gauza asko galtzen dira; keinuak, begira-

dak, zalantzak, egonezinak askotan ez dira ikusten pantailaren bestaldean.

Bai, konplexua da. Ikasleak aurrean dituenen, irakaslea konturatzen da azalpena jarraitzen duten edo ez, igartzen du jakin minik sortzen ote zaien, zerbaitetan sakondu behar ote duen... Oso konplikatua da pantailaren beste aldean aurpegiak ikustea, ikasle guztiak ikustea eta emozioak identifikatzea. *Online* hezkuntza sekulako ahallegina da irakaslearentzat eta ikaslearentzat.

Ahal bada hezkuntza presentziala, baina telematikorako prest.

Bai. Biek bateragarriak eta osagarriak izan behar dute, bat ez da bestearentzat mehatxua. Ikasi egin behar dugu bi moduak nola uztartu eta nola erabili hezkuntza prozesua indartzeko. Ez dakigu nolakoa izango den datorren ikasturtea, baina orain gertatu denetik ikasketak atera beharko ditugu. Prestatu egin behar dugu gertatu daitekeenaren aurrean erantzun egokiak emateko. Pasatu dugun guztia ezin da alferrik izan, zerbait ikasi behar dugu honetatik. Nire kezka da datorren ikasturtea modu presentzialean hastea eta kito, pasatutakoaz ez ezer ikasi izana. Kontrakoa izan behar du; hezkuntza presentziala eta telematikoa indartzeko moduak prestatu behar ditugu, ez berriz konfinamendu bat gertatuko delako, hezkuntza prozesua bera aberasteko eta indartzeko baizik. Agerian geratu dira ditugun gabeziak. Orain arte teoriarik asko aipatu da *online* hezkuntza, baina ez da oso serio hartu izan, saiakera ahulak izan dira. Orain konturatu ga-



Luis JAUREGIALTZO | FOKU

ra zein garrantzitsua den prest egotea, zein lagungarria izan daitekeen eta zein beharrezkoa.

Jakinduneko bideoek ulermen laguntzen dute. Eta ulermenak da ikasketa prozesuaren abiapuntua, ezta?

Bai. Gerta daiteke klasean entzundakoa ez oso ondo ulertu izana eta Jakindunera jotzea ulertzen saiatzeko. Gerta daiteke bideoa ikusita ere ez ulertzea eta irakaslearengana joatea zalantza argitzeko. Hori da ikasketa prozesua. *Online*

munduaren abantaila da une oro irekita dagoela, beti dagoela eskura. Ez da oso garestia, kalitatezkoa izatea zaindu behar da, baina 24 ordutan ikasketak bat eskura daukazu. Modu presentzialarekin uztartuz gero, aukera asko eskaintzen ditu *online* hezkuntzak.

Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren azterketak ate joka dauden honetan, horiei begira ere jarri zarete.

Bai, gure asmoa da datorren astean plataformara eta YouTube bideo berriak igotzea,

azterketa horiek egin behar dituzten ikasleei laguntzeko. Hamar-hamabost bat bideo izango dira eta matematikako gai garrantzitsuenak jorratuko ditugu bideo horietan.

Oso egoera berezian iritsiko dira ikasleak aurten Unibertsitatera Sartzeko Ebaluaziora eta garrantzitsua da denon artean ikasle horiei laguntzeko ahalegina egitea. Laguntza guztia beharko dute. Beren hezkuntza prozesuan une garrantzitsua da eta zoritxarrez baldintza oso ezohikoak dira aurtengoak.



«Hezkuntza presentziala eta telematikoa indartzeko moduak prestatu behar ditugu, ez berriz konfinamendu bat gertatuko delako, hezkuntza prozesua bera aberasteko eta indartzeko baizik. Agerian geratu dira ditugun gabeziak»

ireki gure leihoa



GAUR8



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

SUA, SANJOANETAN ETA ARTE GALERIETAN

Atzo, San Joan gaua baino bost egun lehenago, Koldobika Jauregiren eta Elena Carajavilleren lanez osatutako erakusketa zabaldu zuten Donostiako Ekain Arte Lanak galerian: Sua. «Hura asmakizuna/ homo habilisena». Natura elementu horren bi alderdiak bildu dituzte artistek beren obra horietan: Su purifikatzailea, birsortzeko eta susmo txarrak uxatzeko, eta suntsitzailea, basati eta txikitzailea. «Bi harrik elkar jota/ txispa bat aurrena/ Asmakizun haundina/ mendetan barrena». Laratzeko sua, erakargarri eta babeslea, eta liburu erretzailea. «Sua da problema/ zenbait basorena/ edo jaki dena/ berotzen duena». Aurten, San Joan suak, pizten dituzten lekuetan, kontrol handiaren pean izango dira, jende kopuru mugatu batentzat. Horren aurretik eta ondoren ere, ordea, suak iradokitzen duen guztiaz gogoeta egiteko leku aproposa izango da Ekain galeria, bertsolariak «bi begiradek sortzen dutena» deskribatu zigun egunean bezala. Xabier Izaga Gonzalez

Oporrak non?

**Xabier Mikel
Errekondo**

San Juan suaren kea opor usainaren lehen zurrutada bilakatu ohi da nigan. Udaberriaren argi goxoa eta haize freskoak behar lukete negu ilunaren zulotik irten garenaren zantzu naturala, baina inguru maite honetan bizi garenok ondotxo dugu ikasi “Mordor”-en beso beltz eta euritsu luzea sarritan udaren atariraino zaigula luzatzen, gogaikarri.

San Juan suaren garrak badira aparteko magia eragiteko gai. Urdail-urinak dantzan jartzen dizkit eta, duela hilabete batzuk antolatu oporrak hurbiltzen ari zaiz-

kidan seinale, eguzki printzen bero goxopean biluzi eta denboraren jabe egingo naizela begitantzen dut, sentsazio guztiak aurrez dastatzen hasiko banintz bezala. Uda, senideekin eta lagunekin maiz elkartuko naizen aroa, gau labur izartsuak eta egun argitsu eta ia dena egiteko adina denbora ematen dutenak. Egia da, iritsi da oporren urtaroa.

Baina Koronamaloak ez du honaino guztiz desagerrarazi Mordorren urtaroak ekarri zigun koronabirus hiltzaile hau eta bertan geratzekoa omen, bazter guztietako bertan, eta mehatxuak beldurtuta

gauzka. Halere, dagoeneko etxetik irteten gara, inguruko herrietara joan eta zortekoak gara gobernanteek Kantabriara eta Errioxara joan ahal gaitezen erregutu baitute... gure hobe beharrez. Hauxe Euzkadi berria.

Eta ni antsietateak jota nabil argitu ezinik zelako opor-terapia ospatu ahalko dudan. Baina gauza bat argi daukat, ardurdun politiko arduragabeen zein bestei uda honetan *patria* eraikitzeke eskatzen ari zaizkigun familia politiko bereko kideen aholkuari iskin egingo diodala.

Nik oporrak “Euzkadin” ez. •

«Te comería»

**Amagoia Mujika
Telleria**

Oraingoak ez omen dira gu bezalakoak. Guk gorputzak ezkutatzen omen genituen eta, oraingoek, ahalik eta gehien erakutsi. Ez dakit. Lehengoak denak ez ginen berdinak eta oraingoak ere ez dira izango, noski. Lehen bezala orain, denetarik. Niri poza ematen dit neska gazteek beren gorputza ondo maitatzen dutenean eta, batez ere, gogoak ematen dien bezala ezkutatzen edo erakusten dutenean.

Han joan dira, galtza motzetan, bizikletak hartuta. Eta hanka ederrak di-

tuzte, noski baietz. Zebrabidean autobat geratu egin da, gidariak leihoa jaitsi du eta mantso-mantso «*te comería*» esan dio nesketako bati, «begietara begira-begira». Seko beldurtuta etxeratu dira, izozkia mikaztu zaie eta arratsaldean izoztu. «Begietara begira-begira» esan dio, oso serio, eta beldurtu egin dira. Nola ez dira beldurtuko ba!

Kalean libre ibiltzen ikasten ari diren garaian; garaiezinak, indartsuak eta askeak sentitzen diren garaian; han azaldu da betiko *baboso* tipikoa eta *ttak*, beldur dosi justua. Beldur dosi justua

kalea ez dela ez askea ez segurua gogorarazteko. Zer uste zuten ba?

Gizonezko batek gosea duenean pintxoari begiratzen dion begiratu berarekin begiratzen zaituenean, horixe sentitzen zara, pintxo tentagarri bat. Norbaiten oinarrizko beharra ondo aseko lukeen gauza bat. Horregatik «*te comería*» hori.

Ze nazka eta ze amorrua. Zenbat belaunaldi gehiago beharko ditugu *baboso*-ekin bukatzeko? Ez dakit neska gazteak aldatu egin ote diren. Tamalez, erasotzaileak ez dira apenas aldatu. •



> Botaba Unibertsoa, gazteei begira



GAUR8

Labayru Fundazioaren ekimena da Botaba Unibertsoa, eta egitasmoak lagunartean erabiltzen diren «euskal esamolde kolokialen erabilera gazteen artean modu dibertigarri eta ludikoan» sustatzea du helburu.



Bideo lehiaketa gisa jaio zen, Botaba Erronka izenarekin, eta orain ideia eraberritu eta proposamen berriak dakartza. Hasteko, oraingo proposamena ekainean hasi eta urte bukaerara arte iraungo du.

«Ligatzerakoan, parranda giroan, lagunari adarra jotzeko... adierazkortasunez jarduteko beharrezko baliabideak jolasaren bitartez ezagutarazi nahi ditugu, parte hartzaileekiko interakzioa sustatuz», azaldu du te egitasmoaren bultzatzaileek. Labayru Hiztegi Fraseologikoak jarraituko du edukien oinarria izaten eta, aldi berean, «kaleko erabilera naturala ere ekarri nahi dugu Botaba Unibertsoa, erdi ezkutuan dauden esamoldeak argitara ateraz», nabarmendu dute.

Orain arte bezala, askotariko esparruetako pertsona ezagunen lankidetza izango dutela jakinarazi dute. Kirolaren munduko, kultura arloko eta komunikazioaren esparruko pertsonak izango dira, besteak beste.

Astero, @botabaunibertsoa Instagram kontuan «asmakizunak, hizki zopak, jolasak, galderak, hieroglifikoak eta bestelako probak izango dituzte parte hartzaileek, eta «gazteen zaletasunen arabera sariak» egongo direla iragarri dute ekimenaren arduradunek.




> Espainiako ministro baten «Piztiaren Eguna»

Jorge Fernandez Diazek Benedikto XVI. arekin Kataluniari buruz hitz egindakoa kontatzen duen etxeko bideoa Alex de la Iglesiaren film bat izan liteke, baina ez da hala. Espainiako Barne ministro ohia eta Eliza katolikoaren aita santu emeritua diagnostiko honetara iritsi ziren: «Deabruak Espainia suntsitu nahi du, baina ez du



lortuko». Ez zen beste mende batean gertatu, 2015ean baizik. «Esan zidan Deabruak badaikiela zer zerbitzu egin zizkion Espainiak Kristoren Elizari, Espainiaren misioa, Amerikaren ebanjelizazioa, Espainiak Kontrarreformen izan zuen rola, joan den mendeko 30eko hamarkadako erlijio jazarpena, hitzez hitz esan zidan...».



> CIC nanoGUNEren proiektu bat, Europak finantzatua

CIC nanoGUNE euskal zentroak koordinatzen duen SPEAR proiektuak «hurrengo belaunaldirako konputaziorako memorien eta prozesadoreen material berriak» aztertzea du helburu. Europako Batzordeak lau milioi euroko laguntza emango du, Europako bost erakunde akademikorekin eta zenbait enpresarekin elkarlanean egiten ari den egitasmo hori finantzatzeko.



Diru hori batez ere doktoratu aurreko hamabost ikertzaile kontratatuta eta horiei goi mailako prestakuntza emateko erabiliko da. CIC nanoGUNE kordinatzen duen proiektuan CEA Frantzia, ETH Zurich-Suitza, IMEC-Belgika, U.Hamburg-Alemania, Martin Luther University Halee-Alemania erakunde akademikoek eta ANTAIOS, OZabre eta NanOsc enpresek hartzen dute parte.

> Telebista eta Internet kontsumoaren errekorra apirilean


Apirilean, konfinamenduaren asterik gogorrenetan, adingabeak oraindik kalera ateratzen ez zirenean, telebista eta Internet kontsumoaren errekor historikoa gertatu zen: bost ordu eta 28 minutu telebista aurrean pertsonako eta eguneko; eta hiru ordu eta hamalau minutu Interneten.

Carmelo Garitanoandia kazetaritzako irakaslea da, “EU Kids Online” nazioarteko ikerketa taldeko kidea, bai eta “Safer Internet Center” europar proiektu-



tukoa ere. EHUren “Campusa” aldizkarian laburbildu ditu 2020ko apirilean eta maiatzean egin dituzten neurketak.

Alde gutxi dago telebista kontsumitzailearen eta Interneteko bideoen kontsumitzailearen profilen artean, generoari dagokionez. Aldiz, alde horiek esanguratsuak dira adinari erreparatuz gero. Telebista ikusleen erdiak 55 urtetik gorakoak dira, eta Interneteko bideo kontsumitzaileen %75, adin horretatik beherakoak.



> Egungo hezkuntza ereduak «krak» egin dezan

NAIZ+ atariko “Ikoitzen arak-tza” blogak konfinamendu garaian egindako solasaldi baten berri ematen digu, bai eta haren bideoa ikusteko aukera eman ere: “Irakaskuntza covid-19aren paradigmaman. Zein toki du eskolak?”.

Izenburu hori jarri zioten Iruñeko Katakrakek antolatutako hezkuntzari buruzko hiz-

ketaldi digitalari. Katakrakek covid-19 osteko mundua irudikatzeke antolatu dituen solasaldietako bat izan da hori, hezkuntzari loturikoa.

Horretarako, hezkuntza komunitateko kide diren Iosu Ihabar eta Nora Salbotx izan zituzten mintzaide. Ikusgai dago gogoeta horiek biltzen dituen bideo osoa.





Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Oheko korapiloak



Batzuetan gure sinismenak eta desirak ez dira parean gertatzen. GAUR8

Gure desirak eta praktikek beti jasan izan dute kanpoko begiraden iritzia. Kanpotik ezarri zaizkigu arau eta moralak, gure nahiak baldintzatzen dituzten epaiak. Zer egin daitekeen, norekin, non, nola, noiz... Normatibitate horren aurka borrokatzen garenak asko gara, badakigu pertsona asko geratzen garela bazterretan eta, horrek, tratu txarrak dakartza. Bazterketa oro, indarkeria baita. Edo ez?

Oso zaila da inor baztertzen ez duen pentsamendu, ideia, ideologia, erlijio, politika... aurkitzea. Ona eta txarra, onargarria eta onargarria ez dena sailkatzen ditugulako. Beharrezkoa da, noski, baina jakin behar dugu gureak ere badituela bazterrak, eta horiekin zer egin ez da hain erraza. Edo bai?

Gure ideia propioak sortzeko bidaia horretan fase askotatik murgiltzen gara; batzuetan zeren aurka gauden argi daukagu, gauzak nola ez ditugun egin nahi. Besteetan gure nahiak asetzeko eta modu horretan bizitzeko bideak bilatzen gabilta, gure izateko modu bakar honetan maite eta zaintzen gaituzten pertsonak aurkitu

nahian ibiltzen gara beste batzuk... Baina zer gertatzen da pentsatzen eta nahi dugunaren artean kontraesanak ditugunean? Zer gertatzen zaigu gure ohea ez denean gure ideologian sartzen? Monogamian ez sinetsi eta betirako harreman bat nahi dugunean, genitaletatik haratagoko erotikan sinetsi eta enpotratuak izatea gustatzen zaigunean, edertasun ereduak zalantzan jartzen ditugunean eta gustuko ditugunak bertan sartzen direnean... Hemen dator drama. Betebeharrak eta desirak ez baitira oso ondo eramaten, desirak beren bide propioa baitute, beren esentzia eta, askotan, pentsamenduak ez daki horiek nola ulertu, ezta nola kudeatu ere.

Kanpokoarekiko ditugun ideia eta iritziak, gure ohean ere sar daitezkeela kontuan

izan behar dugu. Askotan erraza egiten zaigu kanpkoa epaitu eta horren aurka borrokatzea (meriturik kendu gabe), eta, beste askotan, gure azalean, gorputzetan, gure erotikan gertatzen zaizkigunean, zer egin ez dakigula aurkitzen gara. Asko dira gugana hurbiltzen direnak horrelako buruko minekin. Azken finean, nork ez ditu kontraesanak?

Kontraesanak izateak ez gaitu okerragoak egiten, hazten jarraitzeko bide bakarra dela uste dut. Gure desiren aurka borrokatzeak ez digu onurarik ekarriko, desirak askeak dira, beren esentzia propioa dute, aldakorrak dira... Desirekin zer egin erabaki dezakegu, hori da dugun aukera. Ez dezagun ahaztu denak garela desberdinak, gure modu bakar eta errepikaezinean. Ausartu gaitezen gu geu izaten, ohean eta kanpoan, hori baita daukagun erronkarik handiena. Gure buruarekiko geroz eta epai gutxiago izan, geroz eta errazagoa izango baita gure bizitzaren ardura hartzea. Epaiak ez digutelako hazten uzten eta dagoeneko baditugu nahiko (eta gehiegi) kanpotik ezarritakoak. Ez dezagun gure burua geuk gehiago estutu. •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

1935EKO SAN JOAN ZUHAITZAREN JAIA

1935eko ekainaren 23an, igandez, arratsaldeko seietan, Isidro Ansorenak zuzendutako Udal Txistulari Banda eta dantzariak agertzearekin batera, "San Joan zuhaitzaren jaia" hasi zen Donostiako Konstituzio plazan. "El Día" egunkariak albistearen berri eman zuen, eta, besteak beste, plazan zinegotzi eta herritar ugari egon zirela nabarmendu zuen. Udal Bandaren interpretazio aparta ere goraipatu zuen egunkariak. Jesus Guridiren "Euskal koadroak" eta "San Joan martxa" abestiak eskaini zituen, besteak beste, Udal Bandak. Dantzariak "Kinkirrinera" dantzatu zuten sua piztu bitartean. Urte batzuk lehenago bertan behera utzitako San Bizente parrokiaren eta Konstituzio plazaren arteko prozesioa faltan bota zuen "El Día" egunkariak, eta bere buruari galdetzen zion "donostiar zintzoek" hain berea zuten zeremonia ezin ote zen berriro egin. Goian jasotako argazkia Ricardo Martinek egin zuen, eta 1935eko ekainaren 25ean "El Día" egunkariaren kontrazalean argitaratutako bera da.

ohiz kanpoko bizipen kolektiboa

Harkaitz Cano idazlearen egunkariaren bidez eta
Foku agentziako hamasei argazkilariren begiradaz kontatua,
historiarako irudi ezohiko eta zirraragarriekin

gure oroimen emozional eta grafikoa

Euskal Herria begiratzeko beste modu bat

izurria hemen

FOTODIARIO DE UN CONFINAMIENTO

Harkaitz Cano • Foku



Hilaren **27** eta **28**an,
larunbat eta igandean,
kioskoetan

20€

*
Harpidedunentzako
eskaintza berezia

18€

Edizio elebiduna: euskara / gaztelania
Azal gogorreko koadernaketa, 184 or.
GARAK argitaratzen du

etorkizunerako testigantza aparta

* Erreserbatu zure alea 94.424.55.56 telefonoan (9:00-15:00) edo igorri dizugun e-mailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu, bidalketa gasturik gabe.

GARA

